

**MURRUAZ
BESTALDEAN
(IPUIN BILDUMA)**



XABIER GALARRETA

© Xabier Galarreta
© Marjinalia Bilduma
2. edizio hobetua, zuzendua eta berridatzia
1996. urtea (iraila)
Legezko Gordailua: SS-254/99

AURKEZPENA

Nire bizitzako zati bat nitaz ahaztu zelako, gaztarotik ari zait egun oihuka: zenbat aldiz izan beharko duzu oraindik ere? Kalean nabilenean, poliziek lapurtzat jotzen naute. Emakumeek nigan ikusi-uste dute gizon gaiztoa. Nik, ordea, aurrera jarraitzen dut guztiei hanka eginez (karrika ilunetan hobeto esnatzen naizelako; karrika estuetan munduaren zabala hobeto ulertzen dudalako).

Sorgin-orratzak lagun ditudanez gero, urbazterretako ihietan izango nauzue, intsektuen zain, irense irentsia (mingostasuna gozotasunetik bereizten jadanik ez baitakit). Bestetik, ez du balio odol gaiztorik egitea —ez ote da gaurko argia atzokoarena bezain distiratsua?—. Lurrean hatzaparka ari naiz, ahoskatu gabe gelditutako hitzaren bila. Lurrak belarrira esan dit zera: meza emango da bihar zure arimaren alde. Horrek tristatu nau oso, gizonek *arima* deitzen duten hori aspaldian hondatu zitzaidalako.

Egunen batean ez duzue nire berririk izango: une batez egon nintzen, une batez hitz egin nizuen, une batez ueña izan nintzen. Begiak itxita, entzun gabe entzungo diet nire hitzei. Hitzak begietatik aterako zaizkit antxeta ugari bihurturik.

Liburu bat emango diot plazatxoari. Hilxeagoa naiz. Kanpoan, berriz, euria behin eta

berriz erortzen ari... Inoiz esan nizuen bi gizon desberdinen artean bizi izan behar dudala? Lehenengoa gau-gauero itsasoratzen zait Brehen-go portutik abiatzen den merkantzia-ontzi bakoitzean; bigarrenak, ordea, lehorretik esaten dio lehenengoari: ez ahaztu nire idaztea!

Lerrook idazten ari natzaizue nire gelako mahaietan (mahai honetan, mahai honetatik bakar-bakarrik uler nezake mundua): belaunaldi mozkortu bateko semea, igerika —galdurik— ari den hitzaurrea, barrutik bizi diren horietakoa... nauzue! Paisaiak ere asmatzen badakit. Eta noizean behin, larrua jotzen dut emagalduekin. Gainera, biharamunak itxaropen bat zor dit (adimena kaiola baten barruan sartzeko keinua emanik daukat eta).

Litekeena da barre eta negar batera egitea. Barre dagit bidaiaren paisaiak ohartzen naizenean; negar dagit atzean utzitako paisaietan pentsatzen dudanean.

Atzo bezala iragaten naiz eta gorroto diot pedanteari. Gainera, nire ileari tiraka hasiko bazinete, burusoila gehienez utziko nindukezue (munduko orduak patrikan daramazkidalako, munduan zehar ijitoen antzean nabilelako).

Makinatxo bat egun joan zait alferrik. Bost axola niri. Atzoko zeruak zituen hodeiak honez gero egongo dira urruti: zertaz kezkatu, beraz? Zergatik burua bueltatu behin eta berriz atzera? Filosoforik hoberenek ere, ez ote zituzten lelokeriarik handienak bota?

Orain arte bizitakoaz pentsakor dihoakit

goiza. «Iragan nekatu eta hondatu batekin topo egin huen beti», jakinarazten didate Ahotsek. Eta segituan: «Axioma haiz, ameslarien ametsak hireganatu hituenetik». Egia diote: ametsek Greziako jainkoen jauregiak erakutsi zizkidaten.

Nire hitzak noiz zahartuko zain geldituko naiz. Su emango diet gelako hiztegi guztiei (horrela egingez gero, errautsak baizik ez da deus ere geldituko... nitaz). Zer esan nahi du horrek? Zer ari naiz ezkututzen?

Ordenagailua nola erabili ez daukat ideiarik ere: heriotza merezi al dut?

Leiho bat dago gure zain eta bakoitzak jakingo du leiho horretara nola irten. Gure ordez beste inor bidaltzea ez baita posible.

Nitaz bestaldean paisaiak zabal-zabal, nitaz bestaldean etengabeko katea, nitaz bestaldean hotsik gabeko itsasoa, nitaz bestaldean gizonak ametsetan, nitaz bestaldean behinolako soinuak, nitaz bestaldean haurtzaro izengabeak, nitaz bestaldean borroka ausartak... Nitaz bestaldean, lo egin ahal dut.

Bihotza behar dut inoiz baino gehiago. Amets pila daramazkit buruan (baita zapata zoletan ere — horretxegatik ez nago nekaturik, kalean asko ibilita ere—). Arratsaldeak alferrikaltzeagatik soldata gehituko didatelako uste onik ez daukat. Horrek nire onetik ateratzen ez banau ere, ezerezaren zaporea dastarazten dit.

Begirada, ahotsa, keinua: gauzarik asko egin daitezke hiruki honekin (kafetegi arrotzak askoz hobeak badira ere).

Hautsez bete dira belartegiak. Bazkaldu gabe nagoela esnatu ondoren gogoratzen zait.

Nahiago nuke inork ni ez ulertzea. Bestela, neuk baino gehiago bukatuko zenukete nitaz jakiten.

Arrunkeria aberritzat daukat. Beraz, ni murruez bestaldean bizi izateak ez du inor zur eta lur utziko.

Ni baino arrotzagoa zen gizon zaharrak lore xorta bat oparitu zidan. Gero, agure gordinaren espresioa aurpegian, alde egin zuen (oraindik iruditzen zait haren barre gaiztoa entzutea).

On ustez doaz hemen esandakoak. Hala ere, ez fida nitaz (ni, behintzat, ez naiz nitaz gehiegi fidatzen). Neuri ere ematen baitidate zer pentsatu franko botatzen ditudan lelokeriek. Kanean, ondotxo dakizuenez, nor bere aldetik dabil jendea.

Oroimen txarrekoa izatea bai zorte handia! Horrela, izan ez naizen guztiaz ezingo naiz gogoratu; horrela, hainbeste bider izan naizen putakumeak ezingo dit oroitarazi.

Lagunekin hizketan nago (ez naute inoiz abandonatuko). Besarkada dardaratsuek eutsiko didate. Ametsak gal ditzaket, niretarrak ez. Orriok irakurtzen badituzu, nire alde jarriko zara behin eta betiko. Hitz arinetan sinesten dudalako, begirada lasaiak nirekin daudelako, bidezkoa den ezer ez dagoela badakidalako, haize ageriko bizitzari maite diodalako. Itsasoak ez du mugarik, ezta nire gelako lau hormek ere. Mundua badoa nire aurretik zabalduz. Noizbait zorionsua izan naitekeela pentsatze hutsak zorionez betetzen nau. Udazkenak

irri egin dit masailean. Etxea daukat hitzek daukaten tokian bertan. Gutxi balitz, erraz maitemintzen naiz. Erokeria zein baino zein handiagoak egiten ditut, maitemindu guztiek bezala. Gauari aup egiten diot. Paisaiak asmatu eta ezabatzen ditut. Hondatutako ziurtasunei bide ematen diet ikaragaitz. Neure ahaleginik jatorrenei gaizki deritzet, berauek burutu eta berehala. Arnas egiten dut. Adigalkor, irakurriko nauzu. Nor naizen, ordea, ez duzu jakingo. Munduko izkinaren batean elkarrekin suertaturik, bostekoa emango diogu batak besteari. Eta konturatuko gara elkar ezagutzen dugula. Eta jakingo dugu jakintsuek dena dakitela (horixe izango da gure garaipena, gure jakituriaren oinarria). Agur hotz bat esanda, elkarrengandik aldenduko gara segituan (ezagutzaren ondorioa aski izango zaigu eta). Samurra naiz — granittoa bezala—. Nire begiek ikusi egin dute.

Hasieran izango nauzu beti (amai bakoitzak hasi zahar baterantz baitarama). Ez nuke jakingo bizitza ziztrinetik urrun bizi izaten. Ez nuke jakingo emakume ederrari lotsa erakusten. Ez nuke jakingo bizitza laztandu gabe egoten. Ez nuke jakingo zu itxaroten, nirekin geratuko zaren ziurtasuna izango ez banu. Ez nuke jakingo abokatua izaten (heriotzara zigortuko nituzke guztiak!). Ez nuke jakingo medikua izaten (bost ogerlekotan salduko nizueke kilo haragia!). Ez nuke jakingo jenerala izaten (emagaldu baten truk hiria errendatuko nioke etsaiari!). Ez nuke jakingo marinela izaten (aukera izanez gero, petrolioz beteko nizkizueke zopa platerak ere!). Borroka bat dago nire burmuinetan.

Garaipenaren bila nabil ordu zurbiletan. Nitaz ezer ez badakit ere, susmoetan susmatzen naiz. Atzera itzuli? Ez, gehiegizko lana emango lidake neronen burua bazterteak. Inork ez dizkit babak eltzetik aterako. Halere, guztiek diraute nire alde. Zuhaitz eiharrak irabazte handia emango didalakoan nago. Eta neure honetan jarraituko dut, emakumea nire zain dagoelako. Nor-datorrenak ere ezagutu egingo nau. Hunkitu nahi zaituzte. Nire alaitasunetik eradan nahi dizuet. Sentitu behar nauzue. Emakumea bazara, indarrez hartuko zaitut. Eta onartuko nauzu — hitzontziak baino beste ezer maitagarriagorik ez dagoelako—. Naizena banaiz, eta kito. Luzaroen usteltzen egon nintzen. Orain, kanta ederrak asmatzen emango dut eguna. Ondo xamar niri kasu eginez gero, nola mandioaren oldarra bildurik daukadan, nik baino altuago kantatzen irakatsiko dizut kanta bat. Edo gehiago igual, bihotz zabalekoa izango bazina. Oso urrutitik entzungo dute zertaz ari garen. Gastu guztiak nire gain! Arrazoi honekin norbait kontentu geldituko ez balitz, auzitan sartzeko prest nagoela aldarrikatuz noa. Bide egin nahi nuke, aspaldiko euskaldunek bezala. Eragozpenik izango bazenu, egin beza bakoitzak bere bidea gero! Ez dago esan besterik. Zer axola niri jakitea edo ez? Haize hotzetik, lehen keinutik, laino itxaropentsutik, irri urdinxkatik baratu nintzen munduari so. Galdezka hasiko natzaizu segituan: lagunduko al didazu gau eta egun? lurra emango al diozu nire gorpuari? ideia gozoak zuretuko al dituzu? ikasiko al duzu entzuten? eta galde egiten? Behar den bezalako

lekukoak bilatuko al dituzu? Txintxoa bazara, kakarraldo itsusi batekin sarituko zaitut. Gu baino askoz urrunago helduko da beti bidea, ezta? Kalearen amaieran, non Herio eserita dagoen, egunen iragateari aurre egingo diot zahar ez zaitezten. Ekialde sakabanatuan, sehaska kanta bat ezpainetan, itxarongo zaitut.

Nortasunak, gutxieneko logika galduta, ez dakar beste nortasun batean bera ezabatzea baizik. Idazki hauetan hitzak badoaz labanak bezala... nortasun bati jarraika, neguan falta den beroa non aurkituko zain, belarrak estalitako arnasari nola eutsiko galdezka. Gainera, inork ez daki ezer — ziurtasunik gabe ez baitago bizi izaterik.

Ziurtasun askoren sentrazioak inguratzen zaizkit. Hori dela eta, nire burua adierazi beharra daukat. Sinetsi nahi nuke biharamunak ekarriko didan hartan; sinetsi nahi nuke eguneroko bizipen aspergarrietan, sinetsi nahi nuke neure buruan. Hitz hauetaz aparte, ordea, ez daukat bat ere. Nekeari segika, udaberria eta uda pasata, eszeptikoaren irria irabazita, ekingo diot ilunabarreko etxera itzultzeari, presarik gabe. «Garai haietan, zigarroak erre eta kafea hartzeak berebiziko pozaldiak eragiten zizkidaten» esango diet guztiei. Izena gogoratuko ez zaidan kale bateko hogeita seian bizi izan nintzen.

Jainkorik izango banu, jainkoari eskerrak emango nizkioke, behar den bezalako aurkezpenak egiteko dohaina oparitu ez zidalako.

Egileak

Disekaturiko itsaso bat ikusi berri dut: orain badakit ez naizela mundu honetakoa. Zeinen gezurrezkoa den nire itsaso hau. Hilik badirudi ere, horren barruan —hitzen aberria hasten den tokian— badago mundua suntsitzeko adina indar, indar krudel eta basatia, zeruaren aurka ari den indarra, zerua bera —ikararen ikaraz— zurbilarazten duena.

Itsaso disekatua... Hura zuen begiez ikustea nahi nuke! Gura izanez gero, ez zaizue ezinezkoa izango: zuen esku dago eta.

Jakin ezazue, berriz, ezen, zuetako inork itsaso disekatua ikusiko balu, une horrexetatik aurrera, neuk iragandako biziaz bestaldeko murrua iragan beharko lukeela berak orobat. Eta horrela eginez gero, ez dago atzera egiterik.

MOTORISTA

Motoristak atzera begirada bat jaurti eta iluntasun hotz eta hezeaz ohartu zen —inguruko mendietatik jauzitako iluntasun hotz eta hezeaz—. Ikara bizian, bizkarrari ia atxikita zeraman bakartegi goibelari ihes egin nahian, azeleragailua sakatu zuen amorruz: zer nahi zuen atzean utzi? gau beltza ala oroitzapen mingarriren bat?

Argi luzea piztuta, suge antzeko errepedeko ukondo zitalak ikus zitezkeen. Laster, motorraren argi salbagarriari esker, berari jarraika zihoan gauaz ahaztu zen, nahiz eta haren barruan kezka adierazkaitzek irau.

—Zergatik hiltzen gara? —Parisko lagunaren galderak gibekeko ilunetik iritsi eta azken segundoetako pentsamendu-hutsunea bete zion; erantzun bakar moduan, motorraren orroa kontzientzia oso-osea zuen gau-minean. Motoristak izan balu jainkoren baten atsedena sikiera! Baina beranduegia zen, eta ondorioz, ez zegoen jada ezertan sinesterik.

Gaily bedight,
A gallant Knight,
In sunshine and in shadow
Had journeyed long,

Singing a song,
In search of Eldorado.¹

Hala ere, bere baitan bizi den hark ez du jainko-beharrik. Zertarako jainko bat? Maitasuna bera ametsen bidez sortaraztea baldin litekeena bada... «Onena zera duk: munduaren aurrean begiak ixtea, bizitzako zaratari ez-entzunarena egitea, garen gezurrari bizkarra ematea», pentsatu zuen motoristak bihurgunean sartu aurretik eta abiadura gutxituz.

Zuhaitzak geldi zeuden keinu eternal batean; baina aldi berean, sudurluze zalapartariaren aurka jaurtitzen ziren —ordu mamietako dantzara ez zeukaten-eta gonbidaturik—: mendekuaren arma ikusezina bazirudien haien adar beltz, momifikatuetatik zintzilik zegoela... Errugabeentzako arma ikusezina... Grina ankerrak saldukeriaz hil zituenak...

Zoramenaren erdian, baserri bateko leiho argitua —mendian barrena, goi-goian eta galduta— nabarmendu zuen: azpiak jan nahi zizkion gauean itxaropen-izpia. «Beraz, han ere *humanoak* bizi dituk...», pentsatu zuen, eta hurrengo biragunean biak desagertu ziren: baserriko leiho argitua eta motorista.

«Zenbat denborak igaro behar du bizi gaituen poesiaz jabe gaitezen?», motoristaren burutik iragandako galdera kezkarria.

But he grew old—
This Knight so bold—
And o'er his heart a shadow

Fell as he found
No spot of ground
That looked like Eldorado.

Berriro burua jiratu zuen: masa beltz, itsaskor eta likitsuak oraindik segitzen zion. Leizeko sabela bezalakoa zen gau mingarriarekin suertatu zen berriro; denboraren garailea ematen zuen gau hiltzaile eta gozoak aurpegira jauzi zion. Iluntasun ozeaniko hura lehen baino ikaragarriagoa iruditu zitzaion —iraganaren gorpua inoiz ez da horren izugarria izango—. Hori dela eta, ezari-ezarian, motorrak bide-bazterrera jotzen zuenik ez omen zuen ikusi. Eta ustekabeen, munduari bost axola zion zorigaitzaren protagonista bihurtu zen. Adar mendekatiek eta bihurriek besarkatua izan zen. Lurrak deitu zion, bekokia musu hotzez estaltzeko.

Motoristaren tramankulua lurean zetzan, atzeko gurpilak jadanik existitzen ez zen autobidetik pirripitaka, amaigabeko ezerezaren bidea egin nahirik-edo.

Hontz batek, hostar atzean ezkutaturik, gogoeta hutsalak egiten zituen gertatutakoari buruz.

Une batez, odolez zikindutako harriaren ondoan, motoristak burua mugitu zuen, ai batekin, segituan geldi-geldi irauteko. Bide ondoko basoa itzal batek zeharkatu zuen barrez, zoro bezain histeriko (gautxoriren baten kanta, agian?).

And, as his strenght
Failed him at length,

He met a pilgrim shadow—
 «Shadow», said he,
 «Where can it be—
This land of Eldorado?»

—Istripua —xuxurlatu zuten motoristaren
ezpainek—. Jaiotzea bezala —esan zuen ahapeka eta
dardarka.

Arestiko iluntasunak eragindako ikara eta
mehatxua bazirudien laztan bihurtuak zirela. Eta
begiak irekitzen saiatzerakoan, gauaren zama osoa
iruditu zitzaion bere betazaletan pausaturik zegoela.
Lurreko bizitza amaitu eta gero, hiru eten-punturekin
gelditu behar...

Aurreko oroitzapen mingarri berbera
(besteren bat ote?) haren burutik igaro eta aurpegian
zirriborratutako irriñoa ezabatu zion. Mundu
honetatik alde egin beharko zuen etorri bezala: bere
buruarekin borrokatzen.

Azken indarrak bildurik, hortzak estutu eta
ukabilak —lurrez beteta— hertsu zituen. Zuhaitzak
jadanik zuhaitz, eta beraien adarrak adar, eta
iluntasuna iluntasun, besterik ez: hiltzeak ez du
misteriorik.

«Over the Mountains
Of the Moon,
Down the Valley of the Shadow,
Ride, boldly ride,»
The shade replied,—
«If you seek for Eldorado.»

1.- Egilearen oharra: ipuinean zehar sakabanaturiko bertsoak Edgar A. Poeren «Eldorado» poemarenak dira. Hau duzue aipatutako bertsoen itzulpena euskaraz (errima eta metrika ez dira gordetzen):

Alai apainduta,
Zaldun adoretzu bat,
Eguzkitan eta itzalean,
Luze ibili zen bidean,
Kanta bat ezpainetan,
Eldoradoren bila zihoala.

Zaldun ausarta, ordea,—
Zahartu egin zen—
Eta bihotz gainean itzal bat
Erori zitzaion
Ez baitzuen aurkitu
Eldorado antzeko lurrik.

Eta azkenez, indarrak
ahitzen hasi zitzaizkionean,
Erromes baten itzala topatu zuen—
«Itzala,» esan zuen,
«Non egon daiteke
Eldorado izeneko lurra?»

«Ilargiko
Mendi-tontorretan,
Itzal ibarrean behera,
Zamalkatu, zamalkatu ausart»
—Ihardetsi zion itzalak—

«Eldoradoren bila ibiltzen bazara.»

MINERIAREN BALKOITIK

*Zeinen azkar zahartzen
garen! hain pixkanaka, hain
konturatu gabe ia...*

«Nola pentsatuko nuen egunen batean bera galduko nuela... betiko». Balkoitik kalera begira, gizon zaharra eserita zegoen. Eta bere burutik, iraganaldiko oroitzapenak pasatzen ziren itzal nahasgarrien antzera: ezerezean igerika ari diren oroitzapen samur, mingarriak.

«Koro, Lourdes, Maite eta Ane», xuxurlatu zuten agurearen ezpain dardartsuek (xuxurlak izen haiekiko urruntasuna ezabatuko bailuen). Izen bakoitza bazihoan arrotz bihurtu diren garaiei lotuta, garen guztia aldi zaharreko minerialan arnastuz.

«Koro... Hitzik gabe, bai... Zertarako hitzik? Oso garbi zegoan...». Eguzkiak itsututa zeukala, agureak era nahasian egiten zuen gogoeta. «...Bera utzi eta gero, urte luzeak igaro nizkian bakar-bakarrik... Maite ezagutu nuen arte».

Gutaz jabetu diren oroitzapenetara hurbiltzea berauetan murgildu eta galtzeko, etsipen bidearen atzetik. Zazpi ahalak egin arren, hamaika gezur sinetsi arren, gurea etsipenaren bidea delako.

Aurpegia zimurto ahala, Herioari entzun ahal diogu tipi-tapa gugana hurbiltzen, garaile.

Inorena ez den kaleko alaitasuna agurearen balkoi azpitik iragaten ari zen. Une hartan, gizon-emakumeek «iragana» egitean ziharduten; bakoitzak mundu bat osatzen zuela, kaleko izakiak bazihoazen armiarma-sare batean harrapatuta bezala: maitasunez egarri, gizakiak izateagatik itsu.

«Oso gazteak gintuan... eta burutik txoratuta nembilean, zeharo... Ez, ez... Lourdesekin ez nian bat ere zintzo jokatu... Ezkonduko al zen?»

Galderak. Hondatu zenari buruzko galderak: harrizko iraganak lortutako beste garaipen bat.

«Maite... hik bai min egin hidala... Bihotzean bakarrik senti daitekeen min gozoa ez ninan ezagutu hiri esker baizik...».

Baina urteak ez dira alferrik iragaten. Horrela dio, behintzat, filosofia merkeak. Agertoki ederra zuen agurearen balkoiak: nora ordea?

Kotxe baten balaztek negar egin zuten histeriaz, kaleko asperdura apurtuz. Hamabi urteko mutiko bat lurrean zetzan, ia-ia kotxe azpian, burua odolatan.

«Egun batean, Ane ere galdu nian... Burgosen, bai... Burgosen aurkitu omen zian lana... Nork esan zidan?... Joxek, Joxek esan zidaan... Goian bego, Joxe gizarajoa... Berak ere oso gogoko zian Ane, baina...», agureak —istripuaz konturatu gabe— barretxo bat jaurti zuen, «Ane niretzat izan zuan... *ni* aukeratu nindian».

Ibaiko ur lasterrek eramandako paradisuez

soil-soilik gogoratzen gara, jadanik eskuraezinak direnean, jadanik kandelaren argiak distirarik gabe distiratzen duenean. Oroitzapen-lakua, non mineria —nenufar artean— igerika ari baita hitz alferren moduan, paper zurian idatziz joan diren gizon izengabeen istorioak bezala.

Gizon zaharraren masailetik behera malko bat irristatu zen, gizon zaharraren eskuak xukatu zuena. Munduak barreari eman zion.

IZKINAKO EMAKUMEA

Lainoak —bazter guztietatik helduta— ez zuen jakiterik uzten gizonezkoa ala emakumezkoa zen. Izakiak, ordea, kale-kantoi batean zutik zirauen; noizean behin, ibiltzeari ekiten zion lasai, zigarro amerikarrak etengabe pizten zituela.

Ustekabeko haize boladak izakiaren ametsezko jantzia, laino zuriz egina, altxatu zuen: emakumezkoa. Haizea gelditu orduko, lainoak berriro loditu eta emakumearen irudia ezabatu zuen.

Izutua izan den ametsa bezala zebilen espaloitik, agian haurtzaroko oroitzapenetan murgildurik, axolagabe, oinak herrestan, sorginduriko alderdi hartan bera ere sorginduta.

Halako batean, lainoaren ate ikusezinetik sortuta, beste izaki bat —gizonezkoa berau— azaldu zen. Azalpen berria, presarik gabe, izkinako emakumearengana joan zen: hiri-mortuko lainoan proiektaturiko kezko egia.

Hizketan hasi ziren. Beraien elkarrizketak denboraz kanpoko xuxurla amatatua zirudien. Lainoa, ordea, jadanik ez zen lainoa, hiritarren lepotik barre egiten duen apoa baizik.

Elkarri hitz gutxi esan eta gero, biak desagertu ziren. Lainoak bazirauen zelatan dagoen glerlariaren antzera, hiriko asfaltoa lamikatuz, eraikin

altuak bere maindire hezearekin ezkutatuz.

Hiriak uko egin zuen; bere lo itsua sakonagoa ere egin zen, hitz apokaliptikoen zuloan segituan amiltzeko.

Emakumea eta gizona hizketan egon zireneko izkinara bi gizon iritsiak ziren oraingoan. Haien solasa bazen hain benetakoa, hain egiazkoa, ezen, une batez, sorgin-lainoak hiriari ematen zion isolamendua haustear egon zen:

—Alai nahi diat izan, baina...

—Baina orduan, zer? Ezeren faltarik ez duk. Zergatik dauzkak bihotzeraino sarturik pena horiek?

—Horrelakoak suertatzen dituk, adiskide.

—Ez diat ulertzen...

—Giro txarra diat etxean. Eta gorriak ikusi behar dizkiat. Ulertzen?

Handik gutxira, bi gizonok alde egin eta, lehenengo isiltasunpean, laino zoragarriak besoak luzatu zituen berriro ere.

Izkina bakardade zurbil antzo zetzan, nork jakin bizitza maitatu edo mesprezatzen zuen —zuri koloreko errautsak badoaz ibarretan behera.

Izkinak deiadar egiten zion emakumeari, itzuli behar zuela oihu egiten zion:

—Leizeetako iratzea zara. Ez utzi ni hemen hain bakarrik! Zuk badakizu denok amets egiten dugula. Ez utzi ni hemen hain bakarrik! Nik amesten zaitut, zure ametsak amesten ditut nik. Ez utzi ni hemen hain bakarrik! —ematen zuen izkinak oihukatzen ziola.

Izkinako deiari erantzun nahirik-edo, gaua eta

lainoa lagun, bera ere itzal hutsa egina, emakumezko silueta azaldu zen poliki-poliki bere izkinara hurbilduz, ezaxolakeria beldurgarri harekin.

Itsasoko haizeak soinu bat jo zuen samur. Soinuak marinelek lo egiten duten urrutiraino heldu eta asaldura handia eragin zuen itsasoko morroiengan.

Emakumeak, porrotaren arrakastak, gau loria zeraman keinu bakoitzean: izkinaren kontra eutsita zegoenean, han-hemenka lasai zebilenean, zigarro bat pizten zuenetan, bizitzari zion gorroto sakonean.

Gauaren zurizko mozorrotik sortuta, giza irudi berri bat —gizonezko batena— hurreratu zitzaion. Handik gutxira, biak desagertu ziren txanponek tilin egiten zutela.

Notre-Dameko gargolak pentsatu zuen: «Horrelako emakume baten aurrean, belaunik jarriko nindukek».

ZELATARIA

Bi harkaitz itzel artean, hareetako esfinge ikertezin antzo, zelatariaren armadura oso garbi nabarmentzen zen. Zelataria bazirudien denboraz harantzagoko putzu lehor batera agertuta zegoela.

Itsaso mugagabearen zaindari, betiereko itxarote baten ekialderantz, kasko barruan begiak erne, uretan jositako uhara bezain taxugabea ematen zuen irla-mortuko eta harritsuko soldaduak —bere bi harkaitz arteko goieran sekula ez zuen higidurarik egin.

Marinelek eta inguruko irlletako biztanleek bazuten haren berri. Areago ere: antzinako zelatariak gizon, emakume eta haur bakoitzaren bizitza gobernatzeko zuen bere presentziarekin. Nork jarriko ote zuen han? Noiztik zegoen bere zelata-tokian? Inork ez zekien. Aitona-amonek betidanik ezagutzen omen zuten; irlletako arbasoengandik jasotako legendarik zaharrenetan ere agertzen zen haren aipamena.

Ilusioa zen, ilusio beldurgarria —baita lasaigarria ere— leizez eta munstro izugarritz betetako itsasoan —garai hartako gizonen oso ideia xebleak zeuzkaten-eta ezagun ez zituzten gauzei buruz—. Zeren ontzietako tripulazioek eta irlatar guztiek beldurra zioten; eta beldurra ez-ezik, baita

izu-ikara ere. Modu berean, zelatariaren presentziak ezarritako ikararik horrelako harmonia hedatzen zen alderdi osoan zehar. Eta ingurumarietako biztanleren bati ikararik gabe bizi izateko esan izan bazeniot, ezpata eskuan zuen aurka oldartuko zatekeen, bertoko jainkorik maiteena iraindu izan bazenute bezala.

Ez zen jainkoa ordea, irla-mortuko zelataria. Bai, agian, jainkoren batek han jarrita. Beharbada, zigor moduan? Edo gizakientzako mezu zaila ote zen? Alferrikakoa eta sakona, taxugabea eta esanguratsua, itsasoa zurrumuru gozoa edo orro basatia zenean, errainu galdatan edo ilargi logabea lagun zuela... berak bere betiko tokian zirauen, batzuetan lanbro erdian kasik ezabaturik (irlako zelataria ahantzia ez irabaztera zigorturik egongo balitz bezala).

Baina egun batean, irltako gazte ausarti batek horrela pentsatu zuen:

—Zelatariaren enigma aurkituko banu, jainkotasun horretatik pixka bat gozatu ahalko nitek. Jainkoa bezala agertuko nindukek herriaren aurrean.

Eta txalupako bela hedaturik, iparraldetik zetorkion haize prometagarriaz aprobetxatuz, bere gizartearen arnasa eta pizkailua zen sekretua hiltzeko asmoz, hartu zuen zelatariaren irlarako norabidea.

Gizakion barneko borrokek bultzatzen gaituzte ergelkeria pila egitera. Eta mutil hura egitera zihoana, ergelkeriarik handiena zen.

Ordu batzuk pasata, harrizko tontor eskerga zirudien irla isolatua azaldu zitzaion begien bistan.

Hurbilago egon zenean, armadura iluna — pentsamenduetako mamu ezinezkoa— nabarmendu ahal izan zuen goiko bi harkaitz haien artean. Ametsa, amesgaiztoa, amets dirdiratsu eta zoragarria: zeren aurrean zegoen?

Mutil ausarti eta txoriburua txalupari bira emateko zorian egon zen, ihes egin ala ez dudamudatan. Zoritxarrez, ez zuen horrela egin. Eta uhaitz arriskutsuenartetik estu eta larri maniobratu ondoren, hondartza txiki bateraino gidatu zuen txalupa. Gero, hondartza koxkorrean gelditu eta bertan lehorreratu zen.

Mutila hasi zen harkaitzetatik gora igotzen, helburu gutziatuak bihotza ikaraz betetzen bazion ere. Hodei batek goiera gainean pausatu eta segituan —haizeak ekortua— bere bidea jarraitu zuen azkar, bertotik alde eginez —zer gertatzera zihoan igarri izan balu bezala.

Egia esan, armaduraren barruan ezkutatuta zirauen sekretuagatik ez zuen merezi ezta mundu guztiko jakituriaren jabe izatea ere. Mutila zelatariaren aurrera iritsi eta belaunik erori zen. Ikara dela eta, dardarka zegoen. Azkenez, aurpegia lurrari josita zeukala, totalka hitz egiteari eman zion, burdinazko presentzia izugarriaren oinak ia-ia ezpaineekin ukituz.

Isiltasunak besterik erantzun ez zionez, ahal den adore guztia hartu, zutik jarri eta eskua jarri zuen armaduraren sorbaldan. Ukitu arin honekin batera, ordea, jainkoekin ustez erlazionaturiko zelatariak oreka galdu, mende luzeetan egondako bi harkaitzetatik beheko arroketa amildu eta, hamaika

zatitan apurturik, uretan desagertu zen.

Edozer espero zezakeen mutil gizagaixoak; hura ez baina. Ez zegoen ezer, ezer ere ez!

Irletako biztanleek zelatariaren egia jakin zutenean, autosuntsitze-bide geldo eta erabateko batean murgildu ziren. Itsasontziak uhaitzetan hondartzen ziren —tripulazioek ontziak gidatzeko gogoa eta ilusioa galduta—; gudak etengabe sortzen ziren: leinu artean, familien barruan, gizonen artean borrokatzen zen —borroka horien arrazoa inork ez bazekien ere.

Gezurra da zuri, kotoizko hodeia bezalakoa; egiak zikintzen du kotoia bezalakoa den hodei zuria.

IZURRIA

—St. Giles parrokian gertatu omen duk.

—Zer gertatu da, ba?

—Marinel bat aurkitu ditek izurriak jota.

Mila seiehun eta hirurogeita lauean, mozorroturiko itzal batek besoa altxatu eta hatzekin heldutako zapia erortzen utzi zuen Londresko parrokia batean: hori izan zen lehendabiziko seinalea. Laster, kalean lasai dabilen gizonaren antzean, izurria bere asmo galgarrien berri ematen hasi zen.

—Astebetean igaro duk eta oraingoz ez diagu kasu berririk izan.

—Ez. Nire ustez, lasai egon gaitezkeek. Kasu bakar eta isolatu bat, besterik ez.

Gizon-emakumeek itxaropena behar zuten etsi-etsian, ustekabeko heriotza mehatxu jasangaitza zen-eta. Isilik, edozeini irri egiten ziola, gizon-emakumeen bihotzak zatitzeko prest, maitaleen laztan amorosetan parte hartzeko irrikan, bere liburu makabroan beti sumaketak eginez (gizakiak zenbakiak baino ez baitziren harentzat): Herioa, sekula eta betiko Herioa. Berriro ere bazihoan ikaraz gainezka, bere mezu garbi eta ulerterraza jakitera ematen. Thames ibaiak goibel dirdiratzten zuen.

—Atzo beste lagun bat hilik aurkitu zitean.

—St. Giles parrokian?

—Ez, St. Whitechapelekoan.

—St. Gilesen ondoan zegok. Beraz...

—Bai, hedatzen ari duk.

Gaueko izkina lanbrotsuetan, ikusi nahi ez luketen gizonak ari dira hildakoak pilatzen. Gurdietan —Herioaren gurdietan— nahastuta dautza gorputz guztiak, azken besarkada batean. Bizitzarekin jadanik zerikusirik ez duten gizon eta emakumeak, izan zirenaren alegoria gautua dira orain. Bien bitartean, iraganak tantaka erortzen jarraitzen du... guztiontzako hilobiraino.

Zerua ilun dago, eta pixkanaka-pixkanaka, hirian murgiltzen doa. Haizeak ez dakar berri onik; aitzitik, datozen egun beltzak iragartzen ditu kalerik kale, plazarik plaza, aterik ate (Herioak ere badauki atean jotzen).

—Hiritik atera beharko genikek.

—Ez dik merezi. Bideren batean gosez hilko gintuzkek-eta. Gainera, nekazariak ez zigutek harrera onik egingo. Beldur dituk izurria ez ote diegun kutsatuko...

—Zenbat ziren atzo hilak gure parrokan?

—Agintariak diotenez, hiru mila. Baina lau mila ere izan litezkek. Auskalo!

Thames ibaiak, neke-neke eginda, hiriko bazterrak ferekatzen ditu. Izurriaren armiarma-sarean harrapaturiko londrestar gizarajoeak loa dute ihesbide bakar. Loak, ordea, amesgaiztoak ekar ditzake...

Elizetako ezkilek mutu diraute (ez daukate-eta hainbeste hildakorentzako hotsik). Gurdietan biluzik, hildakoek bakartasun gorrian egin beharko dute hilerrirako bidea. Eta gorpuk hilobi itzelean

bota eta gero, bihotz gogorreko ehorzleak zama berri bila abiatuko dira.

Bizitzaz ahituta dirudien hirian ez da zaratarik txikiena ere entzuten. Ahantziaren laztanak ukituko balu hiri zauritua! belarra izango balitz horre guztia ezkutatzeko gauza! arratsalde urrun eta alaiak berriro itzuliko balira!

—Mezatarara noak. Ba al hator?

—Mezatarara? Ez al dakik apaizak utzi gaituela?

—Utzi...?

—Bai, alde egin dik. Zera, hiritik atera duk, beste asko bezala, izurriari ihes egin nahian.

—Stepneykoak ere alde egin du?

—Ez, horrek ezin horrelakorik egin. Hilik zegok-eta.

—Eta St. Martinekoa...?

—Bere tokian zirauk.

—Beno, orduan St. Martineko elizan entzungo diagu meza.

—Ez, ni ez noak. Jendaurreko tokietan oso erraz kutsatzen omen duk.

—Kutsatu, zer?

—Tira, salbazioa.

Azkenez, Herioak existitzeari utzi zion (Herioaren heriotza ezinbestekoa izan zen, hildakoak dagoeneko ugariegiak ziren-eta). Baina ordurako zenbat negar ez ote zuten egin londrestar gizarajoe! zenbat aldiz ez ote zuten desiratuko hilik egotea, bukaera gabeko gau hartatik behin-betiko ihes egiteko! Gizaki etsitu haiek jasandakoa jadanik ez

baitzuen definiziorik onartzen (han ez zegoen hiritarren mina adieraziko lukeen ez hiztegi, ez hizkuntza ez idazlerik... ezta bihotzik ere).

Astebete bakarrean, izurriak ehun mila lagun baino gehiago bidali zituen hilobira; patxada osoz, etxe bakoitzeko atarian toki bat beretzat eskatzen zuela, lasai beti, musu bat uzten zuen aukeratuen ezpainetan —betiko musu bat, amaigabeko gaua bezain bukaezina.

Zorionez, gauza guztiak dute azken bat, baita mila seiehun eta hirurogeita lauko izurriak ere. Itxaropenaren bandera berriro ere altxatua izan zen murrizteen artetik, oihu gero eta itzaliagoen artetik, zeren bizitzako iheskortasunarekin batera amesgaiztorik txarrenak ere... igarotzen baitira.

—Izurritea amaitu duk, baina... hau pena!
Nire lagunak ez dik horren bukaera ikusterik izan!

LAKUA

*Se más que un hombre
menos que una mujer
(Leopoldo María Panero)*

«Ezina zen Lakuan munduaz asper eginda egotea; zeren, paradisu galdu hartan, bizirik egotearen kontzientzia lakuko urak bezain gardena baitzen.

Gauekoek ez zekiten Lakurako bidearen berri; bizitzak beti erakusten zuen irri bat; zorientasunak zorigabea zirudien bertoko biztanleen aurrean; egun goibelak ez ziren existitzen; eta belarrik ñimiñoenak bazuen zuhaitzik bikainenaren edertasuna.

Gizon bat eta emakume bat bakarrik bizi ziren historiaz kanpoko alderdi hartan. Biak biluzik ibiltzen ziren, eta elkarri babesa ematen zioten jolasa bailitzan —arriskurik baterek mehatxatzen ez zituen arren, elkarri babesa eman behar ziotela sentitzen zuten-eta».

—Ez, ez eta hamaika aldiz EZ! Hau ez da idatzi nahi nuena. Beste gauza batzuk dauzkat buruan. Baina beste-gauza-batzuk horiek idazterakoan, horietatik urruntzen naizela ikusten

dut.

—Egon lasai, ez haserretu —erantzuten dio samur emazteak—. Orain ez baduzu lortzen, geroago lortuko duzu.

—Ez, ez dut inoiz lortuko. Gauza bat idatzi nahi nuke, baina gauza horren isla besterik ez dut harrapatzen —ihardesten dio senarrak haserre, errua bere emaztearena izango balitz bezala.

—Orduan, onar ezazu arteak suposatzen duen amarrua eta kito —erantzuten dio emazteak ezintasunez.

—Bai, noski. *Eta kito* —errepikatzen du berak ironiaz.

Azken hitzen ahoskera zakarrak amaiera eman dio elkarrizketari. Gainera, idazleak nekez jasaten ditu bere emaztearen iruzkinak, ele zoroak iruditzen zaizkio-eta.

Bakarka gelditu bezain laster, hasitakoarekin jarraitu du:

«Laku inguruko lurrek maitasunaren ilusioa bereganatzen zuten; artean zuhaitziko xuxurlek obaubak ekartzen zituzten gogora.

Orduak hilik jaiotzen ziren, hango alaitasunak ez zuelako denboraz ulertu nahi. Errealitate bihurtutako orduak ez zekiten aurrera egiten: gezurrezko alderdi hartan, denbora bazen lasaitasun zurbil eta boluptuoso; denborak kolore gabe uzten zituen maitatzeko ordu geldiak».

Sukaldetik heldutako irratiko soinu zaratatsuak eten du idazlearen lana.

—Itzali irrati madarikatua! —orro egiten dio

emazteari.

—Ez dut nahi! Eta niri ez deiadarrik egin, entzuten?

Emazteak aurre egin dionean, idazlea bere burutik atera da.

—Ni izorratzeko egiten duzu! Ala ez naizela konturatzen uste duzu?

—Zoaz pikutara! —mozten du emazteak. Eta gorago eragin dio irratiko bolumenari.

Senarrak sukaldean arrapaladan sartu, irratia hartu eta hormaren kontra jaurti du bere indar guztiekin. Senetik aterata dago, guztiz. Gero, emaztearengana bueltatzen da oihuka:

—Put!

Emazteak zaplazteko batekin erantzun dio. Besteak une batez geldu iraun, eta segituan, emakume ikaratuari esku batekin lepotik heldu eta beste eskuarekin zipli eta zapla hasi zaio, aldi berean oihu eginez:

—Put! Put! Put!

Azkenez, emakumea askatu —zuzenean lurrera jautsi dena— eta bere gelara itzuli da, bertan idazten jarraitzeko:

«Lakuko gizonak eta emakumeak beren buruak irudikatzen zituzten. Haientzako ez zegoen zorion handiagorik asmatzerik (politik diren sentipen guztiek ostatu hartzen baitzuten biengan, eta isilean buruturiko asmoak bezala azaltzen zitzaizkien).

Haizeak, laztanaren pareko, egunsentia erasotzen zuen samur. Gero, haizeak berak

aldarrikatzen zuen, ezen, maitasunik gabe bizi izatea alferrikakoa dela. Horren guztiaren aurrean, alderdi zoragarriak kolore askotako irriak egiten zituen; eta bien bitartean, lakuko ur zilarrezkoak kizkurtzen ziren... atsegin hutsez.

Gizona eta emakumea ez ziren paradisu haren ardatza: nola belar bakoitzak bere tokia betetzen duen, hala betetzen zuen lakuko bikoteak bere tokia.

Lakuko gizona eta emakumea ez zituen bizitzak gogaitzen. Bizi izatearen nekeak ez zien saldukeriarik egiten, ez zituen larritzen, ezta zahartu ere egiten: bizitzak ez zien Herioaren aurrera hots egiten, Herioa ez zegoen-eta bi haien zain».

Bat-batean, idazlearen gelako atea ireki da, emaztea eskopeta eskuan agertuz:

—Zertaz ari zara? Zergatik hartu duzu eskopeta? —bueltatzen zaio senarra zur-zurbil.

—Zer egiten ari naizen? Aspaldian egin beharko nukeena. Bai, horixe —ihardesten dio emazteak bestearengana geldiro hurbilduz.

—Baina maitea, zaude lasai.

Emaztearen begiek su eta gar begiratzen dute, gorrotoa dela eta.

—Lasai? —hitz egiten du ahots mespretxagarriaz. Zurekin *lasai* egon? Egunero txu egiten didazu aurpegira. Zu ez zara gizona. Ez dakizu samurra izaten... zure ipuin madarikatuetan izan ezik. Baina orain neuk amaituko dut zure azken ipuina.

—Ez! ez!

Perdigoiak ehunka sartu dira idazlearen bular,

aurpegi eta sabelean. Desarraren oihartzuna iraungi ondoren, hil zorian dagoen senarraren ezpainenatik honako hitzok heldu zaizkio oraindik ere emazte ikaratuari:

—Lakuko urak nire zain daude... Alde egin beharra dut... Lakuko paradisuari emakumea aurkituko dut... eta biluzik ibiliko gara... —isilune bat eginda, totelka mintzatzen segitzen du—. Lakuko gizona neu nintzelako... lakua, non egun goibelak ez diren existitzen... non orduak ez dakiten iragaten... non denbora lasaitasun zurbil eta boluptuoso den...

Emakumeak ez dio dagoeneko entzuten. Badirudi bere burutik urrun, oso urrun dagoela. Bien bitartean, idazleak azken hitzak ebakitzen ditu:

—Lakuan bizitzak ez gaitu gogaituko... Lakuak ez digu zahartzen utziko... Lakuak ez gaitu Herioaren aurrean jarriko...

Gero, emazteari begira, irri atsegin batekin esaten dio:

—Putxa alua: azkenez libratuko naiz zutaz!

365 KILOMETROKO EMAKUMEA

Emakumearen gorputza —helbururik gabe, keinurik gabe, hitzik gabe— autobidean datza. Pixka bat harantzago, gidatzen zuen autoak sabela erakusten dio zero goibelari. Inora ez doan autopistan horiexek dira istripuaren hondarrak (airean oraindik pirrika ari dira autoaren atzeko gurpilak).

Heriotzaren aurrean erbestea datorkigu gogora (laztana bezalako den hurbiltasuna), heriotzaren tiraniak ez duela itxaropenik onartzen konturatzen garenean.

Emakumeak laster utziko dio amets egiteari; Herioak, berriz, emakumearen ametsa amestuko du.

—Kontaidazu ipuin bat, aitatxi —diote xuxurla batez emakumearen ezpaineak.

Izozturiko gaua inguratu zaio autopista mortuari. Autopistak, gauean, badira elkarrizketa amaigabeak, eta horietan zehar zirkulatzen goaz.

Gurutz Gorriko postuan, telefonoak hots egiten du larritasunez:

—Istripu bat gertatu da autopistako 365 kilometroan. Zatozte azkar. Gidatzen ari zen emakumea kotxetik jaurtita atera da. Lurrean dago etzanik, eta ez du itxura bat ere onik.

Anbulantzia badoa, bere keinu horrekin iluna piztu nahian.

Zirimiria hasi du. Alderdi aspergarri hartan, bazter bakoitza bustitzen duen (a)hots gabeko euritxo da. Hau bezalako gauetan —ez pentsa gau guztiak berdinak direnik— denok gara arrotz isolatuak. Eta ez daukagu nortasun agiririk (langarik irekitzen ez digun pasaportearen jabe besterik ez gara-eta). Istripuko emakumea etxera zihoalakoan zegoen. Etxera, ordea, ez da oraindik iritsi. Ez da sekula iritsiko. Beraz, emakume horrek ez zekien nora zihoan. Baina orain, gertatuak ez du balio gogoeta bakar bat. Eskuak poltsikoetan sartuta, txistuka aldentuko gara: beste moztorro bat jarriko diogu moztorroari, madarikaturik eta santuturik ibiliko gara, amaituko zaigu unibertsoaren filosofia laburra, ez ditugu geure buruak ezagutuko. Hori guztia, zergatik? Behin, autopistan istripu bat izan eta gero, hiltzen ari zen emakume eder batekin suertatu ginelako.

Autopistako bidesarira heldu da anbulantzia:

—Azkar, ireki langatxoa! Istripu bat gertatu da 365 kilometroan.

—Istripua? —galdetzen die harriduraz bidesariko arduradunak—. Horretaz ez dakit ezer.

—Oraintxe bertan jaso dugu deia. Emakume bat zauriturik dago. Ezin da segundorik galdu. Ireki langatxoa!

—Nik ez dakit istripu horretaz ezer! Sartu nahi baduzue, ordaindu saria ala ez dizuet langatxoa irekiko.

Eztabaidaka ari diren artean, emakumeak irri egin du 365 kilometroan.

—Oso ipuin polita, aitatxi —xuxurlatzen dute berriro bere ezpaineak.

Euria hasi du indar gehiagorekin erortzen. Euria da zakarra, eta ez du ulertu nahi. Euria aurpegirik gabeko esfingea da, eta, bihotzari min ematen dio (maitatzen duzun baina maitatzen ez zaituen emakumeak bezala).

—Nola arraio ordainduko dizugu? Lan-soinekoak janzten ditugu. Txakurrik ere ez daukagu!

—Dirurik gabe, ez zarete pasatuko — erantzuten die langileak burugogor.

Gauza guztiak barregarri bihur daitezke. Edozein tragedia uler daiteke komedia balitz bezala. Tragediaren eta komediaren arteko orekan bizi gara: alde baterantz jotzen duena depresio gaixotian amilduko da; beste alderantz jotzen duena, berriz, azalean geldituko da.

Azkenez, langatxoa altxatu eta anbulantziak bere hiltzoriko oihuari berrekin dio.

Anbulantziako kliskak —hori koloreko itxaropen higatuak— badirudi unibertsoa zatika argiztatu nahi duela (min egin eta ahazten erraza den posibilitatea, azkenaren ikuspen iluna aldarrikatzen duen oihu latzaren antzeko), betiko aldentzen zaigun adiskidearen agurra hunkigarriagoa bada ere.

Autopistako argiek klaru eta ilun distirutzen dute (kontraesanetan bizi garenez). Azkenez, uko egiten dio emakumeak munduari. Eta «jadanik hi ez haiz niretarra» erantzuten dio munduak.

365 kilometroko emakumea *zen* guztiz ederra.

Gau zikinarekiko laguntasun azkar eta begi-
ziztako batek eraman zigun sekula eta betiko.

Anbulantziako sendagileak:
—Beranduegi: hil egin da.

JOAN AMOR

«Itzelezko uztarri antzean eramaten dugu gure patua. Heroitasun barregarriaz eusten diogu bizitzari».

Joan Amorek ez zuen ogibiderik. Dena den, Chopinen partitura-zatitxoak bazekien pianoz jotzen, horrek Buenos Airesen ezertarako balio ez bazion ere.

Buenos Aireseko kaian oina jarri zuenean, zeruko argiak eta haize kilikagarriak horrelako irriño abenturazale margotu zioten aurpegian. Sabeleko deiak, ordea, aurkitzen zeneko estasitik atera zuen kolpe batez —sabelek sekula ez dute-eta poesiari buruz ulertu—. Eskua poltsikora eraman eta bi zigarro kaxkar besterik ez zuen tabako-kaxa izan ezik, ez zuen ezer gehiagorik kausitu, txakurrik bat ere ez.

Lagun batzuek erosi zioten Bartzelonatik abiatutako ontziko txartela, azken agur moduan edo. Untziratu aurretik, motxilan pilatu zituen *hornidurek* bizia salbatu zioten bidaiak iraundako hamar egunetan.

—Hamar egun itsasoan! Ez zegok itsasoa baino beste ezer aspergarriagorik —pentsatu zuen Joanek sabelaz ahaztu gabe—. Marinela izatea beti

desiratu nuela pentsatzea ere! —esan zuen bere artean humore onez.

Bere alproja-begirada han-hemen zuzentzen zuela, ibiltzeari ekin zion.

Lehen mailako bidaiariak berarekin batera lehorreratu zirenean, airea betetzen zuten lurrin garestiak inguratu zitzaizkion Joan Amorri; zeina, bigarren mailako bidaiaria baino, bigarren mailako esklabo beltza baitzirudien. Zeren, ontziko marinela zirtolari batek esan zion bezala, «bigarren mailakoentzako dutxarik ez ditek oraindik jarri». Beraz, konketan bainu hartzea erosoegia ez zenez, inoiz baino gizagaixoagoa ematen zuen Joan Amor gizagaixoak (txurro antzeko jantziak ez zion askorik laguntzen, ez horixe). Begi urdinak zituen (*itsasoarenak bezain urdinak* —berak zirtolari esan ohi zuen bezala), eta baita ume-aurpegi liluragarria ere. Bertuteoi esker, pertsona zintzo-eta-behar-den-bezalakoek pobre izatea barkatzen zioten (neurri batean, behintzat).

Hortik aparte, benetan mutil lirain eta sendoa zen (lehorreratzen ari zirenean, lehen mailako emakume bidaiari batek baino gehiagok begiz jo zuen, artikulua erogarri eta desiragarritzat bera harturik, nonbait).

—Hamar egun ontzi nardagarri horren gainaldean. Adiskide eskuzabalagoak nituela uste nian, ba —pentsatu zuen irriño batekin.

Joan Amor ekarri zuen ontziko gainaldea bi zatitan banatuta zegoen. Lehendabizikoa —zabalena eta igeritoki olinpiko eta guzti zeukana— lehen

mailako bidaiariak betetzen zuten, gehienak ogibide liberaleko burgesak; joale maskurtsuek, gaizkile merkeek, obrarik gabeko artistek eta Joan Amor bezalako pertsonaia xelebreek betetzen zuten bigarren gainaldea —olinpikoki estua, ontzi atzealdean kokatuta zegoena.

—Toldo bat, eta besterik ez. Hura bai hotza, gauez pasatakoa! —gogoratu zitzaien Joani bidaiaren pasadizoetako bat. Zeren bigarren mailakoek kamaroterik ez zuten, beraien gainaldean hedatutako toldo baten azpian lo egiten baitzuten gauez.

Bi gainaldeen arteko muga sare handi batek ezartzen zuen. Sareaz gain, orangutan itxurako marinela ere batera eta bestera ibili ohi ziren, zaindari —bide batez, azalean jositako tatuaiak harro-harro erakusten—. Dena den, bi gainaldeetakoak batzen zituen zerbait bazegoen: elkar ekiditen biek jartzen zuten ardura.

«Patu axolagabearen aurretik pasatzen dira gizakiaren hondarrak. Nora joan ez dakigula, elkarrekin goaz... inorekin bildu gabe, elkar besarkatu gabe, zeren besarkada bakoitzak urruntasuna dakar ondorioz».

—Joan diat izena, Joan Amor —esan zion beti irriz egoten zen mutil bati. Barandaxotik itsasoari begira zeuden. Beste mutilak, irri egiteari utzi gabe, erantzun zuen aristokrata-plantak eginez:

—Barkatu, baina ohituratzat zeukaat bigarren

mailakoekin ez hitz egitea.

Handik gutxira, biek barrez eta elkarri eutsiz, zeuzkaten azken txanponak gastatzera abiatu ziren kafetegira (bigarren mailakoentzako kafetegira, noski).

—Buenos Airesera iritsi orduko, nork bere bidea hartuko dik, ados?

—Bai, ados —erantzun zion Joan Amorrrek apur bat minduta.

—Ez haiz toki askotan egon, ezta? —galdetu zuen izena oraindik esan ez zion gazteak.

—Zergatik dakik?

Bestearen irriñoa algara bihurtu zen.

—Baina Bartzelonakoa nauk, hiri handi batekoa —azkartu zen Joan erantzutera.

—Beno —zizpuratu zuen besteak—, horrek bizia salbatuko dik —eta biek barreari eman zioten.

Buenos Airesen lehorreratu baino lehentxeago, Joan bere «ustekabeko adiskidea» bilatzen saiatu bazen ere, ez zuen inon aurkitu. Orduan, bera bakarrik jaitsi zen pasarelatik.

«Ilusio asko izateak batzuk zoritxarreko eta beste batzuk zoriontsu bihurtuko ditu, bakoitzaren zortearen arabera. Patua, ordea, hortxe dago beti, izkinako zelatari, bere apeta maltzurak asetzeko zain, edozeini adarra jotzeko prest».

Untzitik lehorreratu zenetik, bi astebete ziren. Eta gauzak ezin hobeto zihoazkion: lana bazuen, adiskide batzuk eginak zeuzkan, neskato batekin

ateratzen hasi zen...

Zoritzarrez, zenbait pertsona izarrik gabe munduratu ziren. Eta Joan, noski, horietakoa genuen. Bartzelonan bizi izandako hogeitaz hamar urte luzeetan inoiz ez zuen zorion handirik izan. Eta Buenos Airesen bi aste eskasetan lortutakoari, ordea, ustekabeko gertaera batek emango zion amaiera.

Bazebilen kalean neska baten besotik, tupustean norbaitek oihu zorrotza jaurti zuenean. Gero, «krratx» antzeko zarata —labezomorroak zanpatzean, ateratzen dena bezalako zarata— entzun zen. Zazpigarren balkoitik eroritako loreontziak bete-betean jo zuen Joan Amorren burua. Seko geratu zen lurrean etzanda, garuneko masa urradura handi batetik zeriola.

—Monono mío! Monono mío! Decime algo, no más —negar eta deiadar egiten zuen laguntzen zion neskak—. Decime algo!

ESKUTITZA

Brancaleone, 1935eko abuztuak 24

Adiskide maitea:

Agindu bezala, hona hemen nire hitzak — zutaz ahaztuta ez nabilen lekuko.

Italiako herrixka honetatik jarraitzen diot nire arrastoari, jaioterrian egiten nuena beste era batez baina. Esan nahi dizut zera: azkenez, bizitzak erabaki omen du niri irri bat eskaintzea, eta ondorioz, bizitzaren misterioak ez ditut bizi lehengo frustrazioarekin. Dena ulertezina egiten bazait ere, ulertezintasun honi aurkitu ahal izan diot nolabaiteko gozotasuna: munduarekin ados nago. Beraz, zaude lasai: ez naiz berriro saiatuko nire buruaz beste egiten.

Atzoko ilunabarra ikusi izan bazenu! Zerua kolorez beterik zegoen. Auskalo zenbat nabardura ez ote zituen islatzen: gorria, urdina, berdea, horia... Zerua baino ostadarra zirudien, itzelezko ostadarra. Zabaldegi erraldoi eta koloretsu hura ikusita, gauza bat azaldu zitzaidan garbi baino garbiago: «behetik gora begiratu behar dio olerkariak poesiari;

alderantziz, inoiz ez»¹. Sentsazio sakon batean murgildu nintzen. Gauean, hodei ñimiñorik bat ere ez zegoenez, zeru izarratuak eragin zidan egun hartako bigarren pozaldia. Manu, bihotz-bihotzez aitortuko dizut: orain arte, nik ez nekien bizitza ederra ere izan zitekeenik. Goibel eta atsekabe uzten nau nire iraganean pentsatzeak —hau pena, hori lehenago jakitea izan banu!

Orain badakit zein den neronekin izan dudan ankerkeriarik handiena: sekula ez zitzaidan burutik pasatu zorion bila joatea. Bizitzarekin neurekoa, zekena izan nintzen. Hori dela eta, besarkaden aurrean —soilik niretzat luzatutakoen aurrean— axolagabe nirauen, barrutik urratzen ninduen minaz ez bainintzen jakile (ikusten duzunez, zaletasun ikaragarria hartu diot egiari).

Lehen, alferrikakotzat jotzen nuen nork bere burua ezagutzea; gaur, berriz, ez zait beste biderik bururatzen zorion-iturritik ttantaren bat edateko.

Itxaropena nitaz jaun eta jabe egin da. Halere... luzaro iraungo al du egoera honek? Begiz maite dut ikusten dudan objektu bakoitza. Esaterako, lerrotxo hauek idaztearren, herriko etxe zurietatik aldendu eta erre kara hurbildu naiz —haitz artetik isurika doan erre kara—. Eta zoragarria deritzot ur azalari. Eta lur azpiko misterioak bizi dituzten

¹ Egilearen oharra: «Behetik gora begiratu behar dio olerkariak poesiari; alderantziz, inoiz ez» esaldiaren meritua Fernando Pessoa-ri dagokio, eta ez niri (hain zuzen ere, «Artegatasunaren Liburua»tik hartu dut).

zomorrotxoei so gelditzen naiz aho zabalik; eta zuhaitz bikainek euren adarrak zabunkatzen dituztenean... Baina nondik etorrira daukat ezagutza berri hau? Nire samurtasun sakona —objektuekikoa berau—, zelan eskuratu dut?

Bizi izan! Aurrerantzean, horixe izango da nire xedea. Ikusiko duzu, ba, zeinen ederrak jarriko ditudan nire baitako alderdiak. Alaitasun bila abiatzerakoan, ez nauzu —zin dagizut— etsita ikusiko!

Gogoetan ari naiz, ezen, beharrak jarrera ugari eragin ditzakeela —jarrera ugariez gain, zein baino zein desberdinagoak izan litezkeen jarrerak ere bai—; hau da, beharra izan daiteke nire egoera berriaren iturburu, akuilua. Edozein modutan ere, mezua igartzeko bide onean nago. Eta horrela izango ez balitz, egin beza susmoaren mesedeak nire alde.

O, ia-ia ahaztu zait zuri berri on bat esatea: begiz jota daukat bertoko neska zoragarri bat. Kontatuko dizut (ez izan alproja, ez da-eta pentsatu duzuna).

Besarkada handi bat eta laster arte.

Cesare

ODETTE GOGOAN

—Nork bere burua hondatu eta doilortzen du
—esan nion behin Odetteri.

—Egia al da hori? —galdetu zidan berak
kezkatu—. Egia pitin bat sekula ikusi ez duen
gizarajorik ba al dago?

—Egiak —erantzuten nion nik beti— biluzik
uzten gaitu; egia, jaso beharreko zigorra bezalakoa
da. Horregatik, egia bat topatzen dugun bakoitzean,
berriro jaioko bagina bezala da.

—O, maitea. Badakizu oso gogoko ez dudala
pentsatzea —erantzuten zidan Odettek.

Eta horrelaxe zen, bai horixe. Berak sentitzea
nahiago zuen. Inguratzen zitzaizkion gauzak
sentitzen zituen harrিতa uzten ninduen moduan.
Esaterako, Van deir Herbe-ren «Andereñoak»
koadroari begira gelditzen zenean, ez zuen irudiari
buruzko gogoetarik egiten, koadroak eragindako
sentsazioan murgiltzen zela baizik. Irudiaren
sentipen-mundua bere baitan sartzen zuen; eta
azalera berriro ateratzen zuenean, bazeukan koadroa
beregaturik, Odetteren sentikortasuna eta
koadroarena bat zetozen. Eta Odetteri irudiaren
zehazkizun teknikoak adierazten saiatu izan banintz,
irudiari zion axola eta zaletasuna bera ere galaraziko
niokeen. Hori ez lidake inoiz barkatuko. Odettek

mundua ulertu ahal izateko, sentitu beharra zuelako. Azken finean, nik ez nuen eskubiderik Odetteren sentrazio bakar bat ere suntsitzeko.

Urte luzeak iraganak dira ordudanik. Bai, horixe. Garai oso bat; bizitzako aro bete bat. Gaur denboraren jauregian nago, zerbaiten zain. Odette nirekin egongo balitz... Ez! ez! Ezina litzaidake Odetteren aurpegi zaharkituaren aurrean egotea. Ez nigatik, baizik beragatik!

Haurrei bezala hitz egin behar nion, hain zena eta delikatua. Hala ere, beti nabaritzen nion pixka bat... arrotza, nigandik urrun balego bezala. Elkarri ulertzeko giltza ez genuen inoiz aurkitu... Baina... Zergatik ez, gero? Agure leloa naiz. Horrelako ergelkeriak pentsatzerakoan, Odetteren oroitzapena zikintzea baino ez dut lortzen. Elkarrizketarik onenak Odetterekin izan nituen; ez solasik mamitsuenak, baina bai ordea samurren eta sentikorrenak. Zer balio zuen nire jakituria zabalak Odetteren laztan baten aldean? Ezer ez, ezertxo ere ez.

Odettek begiradaz eta keinu urduriez adierazten zuen den-dena... Naufragoa zen, munduko plazatxo isilen erdian. Ez zuen inoiz itxaropen bati eskua luzatzerik izan. Galdurik nabari zitzaion... Nion maitasunaren zentzua kasik ez zuen ulertzera iritsi. Agian, horregatik maite nuen maite nuen bezala.

Batzuetan, gau osoa esna igarotzen zuen; beste batzuetan, berriz, egunak bata bestearen atzetik joaten zitzaizkion logale eginda. Bihotz-kezkek harrapaturik zeukaten. Hori dela eta, oinazeztaturik

egoten nintzen jasanezineraino. Zorionez, bizitza beti idealetan oinarritu dut. Eta horri esker lortu nuen egun goibelestatik onik ateratzea. Gainera, barrutik horzka ari zitzaion harrarekin inoiz suertatu izan banintz, ziur aski Odetteren misterioa eta lilura bera ere hilko nituzkeen... Sorginek behar dute sekreturik izan.

Maiteminez beteriko egunak izan ziren, orain distira urrunak besterik ez direnak...

Harena bai esku trebea lorategia apaintzeko orduan! Eta suertatu behar zuen eguraldia igartzen ez zegoen bera bezalakorik. «Bihar oskarbi egingo du». Eta noski, hurrengo egunean oskarbi egiten zuen — iragarpena egiten zuenean, egun guztiz goibela eta hodeitsua izan arren.

Oroitzen al zara kanta barregarri hartaz...? «Nirekin ez zaudelako sufritzen dut gaur egun. Lehen, berriz, nirekin zeundelako sufritzen nuen...». Ez nuke zure oroitzapena zikindu nahi, baina... baina zu eta bion artean beti izan genuen horrelako... mozorroa, maskara. Elkarren artetik erbesteratuta-edo bizi ginen. Bestetik, nor zinen jakiten saiatzea guztiz alferrikakoa izango zatekeen. Gainera, jakin izan banu, elkarrekiko arrotzagoak bihurtuko ginatkeen.

Noizean behin, dantzan egitea oso gogoko izaten zuen. Bera bai dantzari aparta! Zoragarria, benetan, Odetteren besoetan egotea. Dantzan ari zenean, munduko alaitasuna biltzen zen bere pausoetan. Areago ere, oro har inguratzen zitzaion hoztasunak alde egiten zion. Jakin nahi nuke zer

aurkitzen zuen dantzan... Egia esan, nik entzuten ez nituen soinuak entzuten omen zituen berak. Eta dantza egiten amaitu orduko, bihotz-saltoak nabaritzen zitzaizkion bere bular txiki eta urdurian... Oroitzen al zara modan zegoen kanta hortero eta barregarri hartaz? *«Egunen batean, ni ere hilko naiz... Baina nirea izan zarenez, zer axola niri?»*. Odette... *«Baliteke nire hitzak hitz eroak izatea; baliteke ni gizontxo barregarria izatea. Dena den, pozten naiz hitz ero eta barregarriak esan ahal izateaz»*.

Laurogeita bi urte beteko ditut bihar. Edo... laurogeita hiru ote dira? Edozein modutan ere, zeinen zaharra naizen! Odette, utzi ninduzunetik berrogei urte badirela pentsatzea ere... Mila zortzihun eta hogeita zazpian zure arimak egin zizun. Harez geroztik, hain bakarrik bizi izan naiz! Zahartzarora iritsia naiz; duela urte asko, bai, iritsi nintzen azkenal honetara. Ikusten al duzu? Daukadan aguretasun hau da irabazi dudan guztia. Gaztaroan, ekintzak ziren nire adierazpidea. Gaur, berriz, oroitzapenen lepotik bizi behar dut. Isiltasun gehiegi pilatu da lau horma hauen artean. Axolagabetu ere egin naiz: jadanik ez dut bizarra kentzen, horren atsegin zenituen lurrinak ez ditut erabiltzen... Poliki-poliki, itxaropena nire baitan hiltzen ari da. Odette, bihurgunean sartuko naiz eta ez zaitut aurkituko... Beldurrez aitortu behar dizut: guzti-guztia alferrik izan da...

Ez! Ez da egia. Egon! Ez haserretu nirekin.
Itzuli! Itzuli! Bakarrik nago! Odette!

DIARIOA

Martxoak 19

Berriro ikusiko ez dudan hiriko kaleaz pentsatzeak hunkipen nahasgarriz josita uzten nau. Bien bitartean, bionboaren atzean biluzitako oroitzapen alferrak gezurretan ari zaizkit absentziaz beterik.

Bidaiari iaioa naiz, eta neronekin dudan harremana bidez-edo izan beharra daukat: ez nuen ikasi, garaiz nengoenean; ez nintzen izan, *norbait* izatea posible zenean.

Gaurko hilak baditu hemeretzi egun. Denborak zahartzen nau, denak bezala. Diarioarekin dihardut, nire buruaren aurrean.

Frank Westbrook. Azken boladan, buruhaustek ditut berarekin. Orain bi aste, Frankekin telefonoz hizketan egon nintzenean, zertxobait aldaturik zegoela konturatu nintzen. Frank ez da betikoa. Lehen ez zeukan zinismo arriskutsua antzematen diot berarekin elkartzen naizen bakoitzean. Gaur, Frankez oroitu naiz behin eta berriro, nahi ez nuenean ere. Beharbada, gaztetasunak agur esan nahi dio.

Patxadaz erortzen duten elur-malutei ez diet edertasunik aurkitzen. Leihotik begiratzean,

axolagabe nago gauza zurixka horiei begira. Ez dakit... Burutik pasatu zait zera: ez naizela sekula gehiago kaleratuko, eta betiko hementxe geldituko naizela, zigarro merkeak jo eta ke erretzen.

Nire leiho aurrean norbaitek jarri du bandera bat krespoi beltz eta guzti. Eta goizean, fanfarre bat suertatu da bandera azpitik pasatzera. Musikariak soinu alaiak joka zihoazen. Baina krespoi beltzari begirunerik erakutsi ez diotenez, erabat triste utzi naute beren soinu alai horiekin.

Batzuetan, loak ustekabean harrapatzen nau. Gero, esnatzean, iruditzen zait nire laugarren bizitzako bizitza ulertzen dudala.

Gaur goizean, haizeak —txistuka ari zela— lehen agurra eman dit. Azken agurra ez ote zen izango pentsatu dut ikaraz! Baina eguzkia atera denean, ez dut horretaz ezer gehiagorik jakin nahi izan. Beraz, burua lotara bota dut berriro ere.

Loak eternitatea dirudi, gauzen hondoari entzuten egon zarenean... Orain lehen baino grina handiagoz bizi naiz... hitzen tartetean.

«*Nahi dudan pertsona izango naiz*» helburua oso helburu ona izan daiteke. Dena den, denok dugu ihes egiteko eszenatoki baten beharra. Eskua luzatu behar diogu ihes egiteko itxaropen bati —nire adiskideak kaleko zaborrean bilatzen du bere itxaropena, eta beti aurkitzen du zer edo zer.

—Garenaren helburuak ez dizkiagu ezagutzen —esaten zidan lehenengo egunean Leonardek.

—Leonard —erantzun nion—. Geu gaituk

garenaren helburuak.

Leonardek bazekien nire hitzek zer esan nahi zuten. Ez zen, ordea, nire erantzunaren ondorioak bizi izateko gai izan.

Gizonak bizi gara gutaz ezertxo ez dakigula, gure alaitasun guztiaz, gure antzerki guztiaz. Leloek barre egiten dute, baita nik ere. Behintzat, horrela izatea nahi nuke (nire irria beti baitago puskatzeko zorian; nire irria beti baitago beste irri baten beldurrez).

Mayaren begiak hauskorrak eta dardartsuak dira, bihotzetik zuzen sortutako hitzak bailiran: Mayaren begiak hitzen begiak bezain esanguratsuak. Maya: kaleko zaborrean aurkitutako urrezko itxaropena. Maya edo gauean amestutako ganibeten besarkadak. Maya edo euriko hotsa —ke bihurtuta— desagertzen denean. Maya: zuri esker, zoriotsuagoa naiz.

Zertarako irakatsi zidaten irakurtzen? Zergatik ez zidaten bizi izaten irakatsi? Egindako lan bat gaur arratsaldean berriro irakurtzean, lapurretan harrapatutako mutil koxkorra bezala gelditu naiz. Gero, irekita zegoen leihora hurbildu eta egunaren argiak ulertarazi dit: lurraz dakiten gauzak, koadroetan hilda dauden paisaiak, kolore askotan galtzen diren urrutiak baino ez ziren nire esaldiak. Burutu gabeko asmoak igerika ari ziren urik gabeko itsaso batean, eta bazihoazen noraezean, urduri, zaharkituta, zirt edo zart. Haize bolada bat altxatu denean, errutina gaixotiak bulkatu nau lanera. Otu zait: «Burutik aterata zebilek martxo hilabetea. Noiz

ikusi da leheno elurra, euria eta eguzkia hain zoro-moro nahastuta?»

Naizenari zerbait falta zaio, eta jadanik ez dakit zer den sufritzea. Urdinak eta berdeak opioaren gezurra gordetzen didate. Hori kolorea hilik datza, mesfidantza zekarrelako. Eta ur-jauziak badoaz koloreen azpitik isurika. Uretan, berriz, gorpu izengabeak niri oihuka: «Goitik doazen egiek hilko haute! Aparta hadi bizitza faltsuaren bidetik, haizen apurra hondatu nahi ez baduk!».

Hotzik nago. Eta ez daukat nire bururako definizioa aurkitzerik. Lehendabiziko izarrak, nigandik oso urrun, begia kliskatu dit gaueko hamarretan.

—Sekulako lekutan hago —erantzun diot kliskari—, baina begiz jotzen haut.

Diarioa itxita, nire barrekada batek barre egin du... algaraka.

DARIANA EGUZKITAN

Errainuek Dariana lo nahasgarri batean murgilarazi zuten. Goizaren argitasun gardenean, Darianak zazpi ahalak egiten zituen gogoeta aspergarrietan ez amiltzearren. Eguzkiak gogor jotzen zuen, lurra kiskali nahirik. Darianak, ordea, eguzki-galgatan geldi zirauen, marroi koloreko lurrean buruz gora etzanda.

Darianaren gorputza biluzik zetzan. Udako gelditasunean, lurrak ere hilda zirudiela, adinean sartuta bazegoen emakumeak aurre egiten zien oroitzapenei. Eguzkia zeru osoan zabaltzen zen, suzko pilota eskergea bihurtuta, zerua eta mundua bera ere erre nahi izango balitu bezala. Darianaren olibazko azala bat zetorren marroi koloreko lurrarekin.

Behinolako aurpegiak, sentsazioak eta esaldizatiak pasatzen ziren Darianaren burutik: ekialdeko herri urrunak baino are urrunagoak beraren oroitzapenak.

—Betiko... —hitza, bere ezpainenetik xuxurla batean aterata, mingostasun samurra bezalakoa izan zen—. Betiko... —esan zuen osterera ere. Urdin koloreko zeru sakonetik oroitzapenak trumilka jaitsi ziren harengana.

Zituen berrogeita sei urteak ikuspen larri

batera agertzen ziren. Une hartan, Darianak zera nahi izango zukeen: denboran atzera egin, gaztaroaren paisaietara itzuli, hogeituro urteko itxaropen garbiez berriro dastatu...

Begiak itxita, azala eskaintzen zion eguzkiari. Baso-zulo hartan, sastraka eta sasi artean mundutik erbesteratuta, bertoko bakardadeari galde egiten zion. Hain gogoko zituen eleberri horietako protagonista sentitzen zela, gogoetan bezala dirauen lur gainean biluzik zegoen.

—Gustatuko litzaidaken oroitzapenez ere biluzik egotea —zizpuratu zuen.

Hogeita lau urterekin ezkondu zen sendagile batekin. Eta Lisboarako bidea hartu zuten ezteibidaldia bertan igarotzeko pozez. Pessoren karrika zahar eta artegetan barrena ibiltzeaz nekatu zirenean, Portugaleko kostaldera jo zuten. Bi astez ibili ziren hondartza batetik bestera: eguzkitan, ur epeletan igerika, gauetan esna... Ezkonberrien poztasunetik edan zuten zoriontasunez horditzeraino. Itzuli-egunean, ordea, itzal batek Darianaren sentipen-mundu hauskorra eraso zuen. Eta ezkonbidaiatik itzulitakoan, handik aurrera bizi beharko luketen etxeko atariaren aurrean gelditu zen, duda-mudatan. Behin barruan, zer ote zen berak oso ondo ez zekien zerbaiti adio esan zion «*betiko...*».

Urte luzeak iraganak ziren ordudanik. Bizitzako une onak eta une txarrak *indarrez* bizi izan zituen —gizaki berezien baitatik soilik datorkeen indarrez—.

—Indarra... Bizitzeko indarra... Bizitzari

aurre egiteko indarra... —xuxurlatu zuen. Eta aurpegia eguzkitik babestu zuen eskuinaz.

Darianak bazuen indar kontzeptuan filosofia apal bat egina. Filosofia txiki hau kutxatila batean-edo zeukan gorderik, eta bertatik ateratzen zuen beharrezko zitzaionetan. Erosotasunik eza sekula izan ez bazuen ere, bizitza osoa eman zuen bere buruarekiko segurtasunik gabe —ur lasterretako ibaira erorita bizi izan bailitzan.

Inoiz baino gogorrago ari zuen eguzkia jotzen —zeruko tokirik garaienera iritsia baitzen jada—. Sapa-beroa jasanezina izan arren, Darianaren pentsamenduek bizirik zirauten. Bere gorputzari benetan eder antzematen zitzaion. Dena den, bakardade taxugabe eta borondatezko hartan, Darianaren gorputzak bazirudien existitzeari utzi nahi ziola. Eta azaleko begitxo bakoitzetik hunkipen dardartsu bat zerion.

—Maitasuna eskatzen duenak ez du ezer ematen. Eta maitasuna ematen duenak, ezer eskatzen ez duelako, ez du ezer hartzen —esan zion behinola ugari izan zituen bere amorrenteetariko bati.

Zeren Darianaren ezkontza amorantez josita egon baitzen, ezkontza-nahastean oinarri izan zuen-eta. Zergatik? Agian, hiriko maitasunek ahalik eta gehiena ere kontsumitu behar dutelako; edo bizitza osoan lagun izan zuen segurtasunik eza amorante bakoitzarengan aurkitzea espero izan zuelako (eman diezaioگون aukeratxoren bat erromantizismoari).

Nolanahi izanda ere, Darianaren berrogeita sei urteak txit bizizaleak zirenez, bizitzako

zalapartatik ateratzeak min bizia eragiten zion bihotzean. Batez ere, bizitza amodiotsuari utzi behar izatea zen minik handiena ematen ziona.

—Gozatu! Sufritu! Bai, baina... gaztea izateagatik. Gozatu nahi dinat gaztea naizelako! Sufritu nahi dinat gaztea naizelako! —xuxurlatu zuen ahots apalez eta aldi berean kemenez, ia-ia negar-zotinka.

Darianak, lur biluzian bera ere biluzik, hankak zabaldu zituen pittin bat, eguzkiaren errainuek bere barruan sartu nahi zutela iruditu zitzaion-eta.

GIZON

Bakardea —ametsak bezain egiazkoa, bizitza bezain gezurrezkoa— inoiz suertatu zitzaion tragediarik larriena izan zen. Isolamenduak, tiro baten antzean, denok mehatxatzen gaitu; batzuek, berriz, isolamenduari ihes egiten jakin, ez zuten inoiz jakin. Hori dela eta, munduan bizi zen barruko paisaietako leihora agertuta, atsekabe sakonak lagun zituela.

Ez dut aipatuko protagonistaren izena, gizonezkoa zela besterik ez dizuet esango. Izenik ba zuen edo ez, seguru aski berak ere ez zekien: ametsetakoa mamuek ba al dute izenik? Trenean hamar ordu igaro eta gero, gure aurretik azkar —sentsazioa bezala— iragandako herrixkek ba al zuten izenik?

Gizon-en bizitzan —hemendik aurrera, Gizon deituko diot-eta— ezinegonez beterik zegoen. Hala ere, berak bazekien nolabaiteko pozaldiak izaten. Esaterako, eguzki-egunetan hondartza ondoko kafetegira hurbildu eta kanpoko mahai biribil aurrean esertzen zenean...; edo neska lirainei eta kaleko arratsaldeari begira, denbora kafe-kideei buruz hausnar zihoakionean... Baina gehien gustatzen zitzaion jolasa irudizko adiskideekin solasak asmatzea zen:

—Arratsalde on, Kolovoski jauna.

—Baita zuri ere, Gizon jauna.

Laster, eguneroko gauzeekin zerikusirik ez zuten solasak pasatzen zitzaizkion burutik.

—Bidaia guztiak hondatzen dira ahantzian, Gizon jauna.

—Ez dakit... Maite dudan Berlin neuk asmatutakoa da. Eta ez naiz sekula ahaztuko Berlin horretaz. Beste Berlin hartaz, benetako Berlin-az alegia, bai azkar ahaztuko naizela...

Berak asmatutako pertsonaia hauek beti mintzatzen ziren ahots lainotsu eta samurrez, buruko bazterrik ezkutuenetik sortuak bezala.

—Sari aipatzen didazu Berlin hiria, Gizon jauna. Baina... zuretzat zer da irudizko Berlin hori?

—Irri egiten didan unibertsoa, sentipen sakonetaraino eramaten nauen zubia, keinu batetik kontu-kontari ari zaidan ahotsa... Desiratu dudan guztia existitzen ez den Berlinen dago. Bizitzeko dudan arrazoa existitzen ez den Berlinen daukat. Zeren gezurrezko Berlin horrek *ni nauka*, nire baitan dago. Ez da hiria, sinboloa baizik. Edo, nahi baduzu, bandera da: bizitza geure gisa maitatu dugunon bandera.

Noizean behin, elkarrizketa hausten zuen; eta bazirudien bere hitzek eragindako oihartzunetik zintzilik-edo gelditzen zela. Patxadaz, kafe-kikaratxoa ezpainetara hurbildu, eta irudizko solasari ekiten zion berriro:

—Hiri absurdu bateko gizon absurdua zara, Gizon jauna.

—Hainbeste gauza dira absurduak, Kolovoski jauna.

—Zu poeta zara.

—Beharbada horregatik dira honen tristeak nire poztasunak. Zu, ordea: nor zara zu?

—Ni, Gizon jauna, gizon bat baino ez naiz.

Gizonen denbora mugimendu laburra zen, eta exodo bare eta geldiezin antzean igarotzen zitzaion. Jende arteko bizitza ulertzen ez bazuen ere, murruez bestaldean bizi direnak ere maite zituen (azken finean, zeinen zaila izango zen maitasunik gabe bizi izatea!).

Gizonek bizitza maite zuen, nahiz existentziaren aurrean biluzik egoteko sentsazioa izan. Bere burua nekez nabarmentzen zuen lanbro lodiaren erdian. Bizipen gorriak zirela eta, begiradan seinale dardartsu eta mingarri bat zeukan. Hala eta guztiz ere, Gizonek bizitza maite zuen... amorruez eta gorrotoz.

—Denbora aurrera doa —segitzen zuen bere solasaldi xelebretan sartuta—. Atzo izandako hartatik gaur naizen honaino, bide luzea da benetan. Baina, nor... zer naiz ni, Kolovoski jauna?

—Zu atzo gizona zinen; zu gaur gizona zara.

—Eta bihar...?

Itsasotik zetorren haizeak gatzaren zaporea zekarkion Gizoni —zapora kutuna eta mamia.

Eguzkiak zerua sutan bezala jarri zuen; eta handik gutxira, itzelezko garra itsasertzetik ezkututzen hasi zen. Orduan, Gizonek agur esan zion irudizko lagunari. Eta hiriari inguratzen zitzaizkion

muino gorrixketan gogoa jarrita, bizitokitzat zeukan gelarako bidea hartu zuen.

Gauean, ohean sarturik, euria hasi zuen. Euri-tanta argalak leihoko kristalean labaintzen ziren. Eta bakartasun gorri hartan, Gizonek bere burua irudikatu zuen iluntasun minean deiadarka. Une batez, norbaitek erantzuten ziola iruditu zitzaion.

BAKARRIZKETA

Heriotzak gogo hartuta naukak, eta lanari buruz baino kezka handiagoak dizkiat heriotzari buruz. Azken finean, nor naiz ni? Zergatik naiz «ni», eta ez beste inor? *Nor* gustatuko litzaidake izatea? «Nor». Hitz honetatik abiatzen nauk, guztiak bezala. «Nor», pasibotasuna adierazten duen izenordea, zerbait izatea pasiboa delako. Ez diagu ezer egin behar «zerbait» izateko, «nor» izateko. «Nork», ordea, desberdina duk. Ekintza sortzen duen izenordea duk. Munduaren aurrean jartzen gaitik. Borroka egitea ezinbestekoa dela jakinarazten ziguk. Horregatik jartzen zaiok «k» bat, «k» letra doinu gogorra delako, bizirik egotea bezain gogorra... Auskalo zer ote den gogorrago, bizirik edo hilik egotea.

Hara, ez al da *** hortik datorrena? Ezikusiarena egingo diat. Ez zekiat zer gertatzen zaion tipo honi, baina mintzatzen hasten denean, ez zekik isiltzen. Hitz-jario horiek ezabatu egiten naitek. Gainera, ez dik inoiz esaten gogoratzea merezi duen ezer. Bere barruan berez sortzen den gatazka bazirudik hitzen bidez-edo askatzen duela...

Aspaldi honetan, gutxitan egurastu izan nauk hondartzatik. Baina garai batean, ia egunero jaisten nindian itsas bazterrera. Negu-garaian, hondartzan,

bakardadearen sentrazioa areagotzen zitzaidaan. Azkenez, uste diat gorrotoa hartu niola; hondartzak amorrua ematen zidaan. Itsasoaren parean eraikitako kartzela bezala. Kartzela barruan dagoen preso zeruertzari begira zegok gau eta egun. Libre dagoela amesten dik. Kanpoko askatasuna ametsik ederrena iruditzen zaiok. Berak, ordea, bazekik kanpoko askatasuna ilusioa baino ez dela, kanpoan ere kartzelak badaudela, kanpoko beste kartzela bat dela...

Bakardadeak bizitza osoan jarraitu zidak, eta nire lagunik onena izatera iritsi duk. Zakurrek bezala zaunka egiten duen bakardadea; zakurrek bezala horzka egiten duen bakardadea; zakurrak bezain fidela den bakardadea. Zentzurik ez daukan gizonari oparitu zaion bakardade izengabea. Gaur, ez nindukek bakardadea gabe bizi izateko gauza izango. Dena den, nik ziur aski ez diat inoiz bizi izaten jakin. Bizi izaten jakiteak nolabaiteko artea inplikatu behar dik, eta erne ibili beharra zegok bizi izatearen jakintza eskuratu ahal izateko. Dena den, laurogei urteko agure batek esango balit «nik bizitzen jakin dut», ziur aski ez niokek sinetsiko. Gauza bat garbi zegok: bakardadea existentziako etsairik amorratuena duk. Beste bakardade baten laguntasuna behar diagu. Kaletik dabilzan hainbeste bakardaderen burkidasuna. Bizitzako burkideak izan...

Ni naizen dekorazio kaxkarra ari duk Donostiako Alde Zaharreko kaleetatik egurasten. Igande bateko eszenatokian nagok. Pentsamendua nauk jendetzaren erdian, eta gustatzen zaidak

garrantzirik txikiena ez izatea. Hildakogaia nauk; tragedia bat gehiago nauk lagun askok antzetzutako ekitaldi honetan. Existentzia tragedia delako (azalean bizi direnak oharzen ez badira ere —ikusterik ez daukatelako...).

Lotsa ematen zidak hainbeste pertsonaren artean bakarrik ibiltzeak. Eta bekaizti nauk, gainontzekoen aurpegietan zorion arrastorik aurkitzen dudanean. Historia egiten ari garela pentsatzea ere! Gu, hementxe, une honetan, kalean Historia egiten ari gaituk —esaldirik gabeko Historia liburua idazten ziharduagu—. Eta bakarrik banago ere, taiugabea iruditzen zaidak bakarrik ez egotea. Egunerokoa bakartasunetik ulertzen duten horietakoa nauk. Bizitzako zorionak bakartasunetik bizi dituzten horietakoa. «Estepako otsoa?» Ez. Estepa bera nauk. Estepa hotz eta ankerra; estepa gorrotagarri eta aspergarria. Hamaika kilometrotan zehar errepikatzen den estepa: otsoak ez likek jakingo nigandik kanpoan bizi izaten. Otsoak horregatik maite, soportatu eta defendatzen naik; horregatik zebilek ni suntsitu nahian. Otsoa nigan bizi delako, ni zauritzen uzten zioat...

Nire barruko indar batek (begiramendurik gabe, erabateko ironiaz, hurbiltasun ekidinezinaz) suntsitu nahi nindikek. Kalean ere nire bila zebilek. Eta nire buruari galdegiten zioat noizbait lortuko ote dudan sufrimendurik gabeko bizitza. Baina hori ezinezkoa duk. Itxaroten dudanak izarretako ametsen hautsean itxaroten naik (ustekabeen jazotako saldukeria...).

Gizon bat Togon hil dela ziok kartel horrek. Zeinen urrun —eta zeinen hurbil— maite zuen herritik. Togon! Jende pila, bertan bizi izan arren, Euskal Herritik urrun, oso urrun bizi duk. Azkenez, geuk ere, kristauak ez garenok, oihukatu beharko diagu: «Jauna, Jauna, zergatik utzi gaituzu?».

Min ematen zidak bizirik egoteak, aita-amarik gabe bizi-beharrak, umezurtza izateak, munduan arrotza izateak. Bizirik nagok! E! E! Bihurgune horretan ezkututzen duk nire mezua. E! Sumatu behar nauzue, sumatu behar nauzue. E! Orria nauk, baina ez nagok zuri. Ez utzi ni itotzen bakarriketa sasi-literario batean! E! E! E!

—Kaixo, Kepa!

—E? Zer? A, ***. Hi haiz. Please to met you.
Zer moduz?

**ZERGATIK HILTZEN GARA,
MISTER LINTON?
(Poliziazko ipuina)**

BI ADISKIDE HIRIAN ZEHAR

—Nora joango hintzateke nonbaitera joatekotan?

—Eta hik, zer nahi huke zerbait nahi izatekotan?

Ibili ahala, hitz eta pitz ari dira bi adiskideak (hizketan dauden bitartean, baretasun antzeko zerbait aurkitzen dute-eta euren hitz horietan). Hiriko altuerarik garaienetatik, eguzkiak bere ahalmen itzela erakusten du indartsu. Bi adiskideengatik izango balitz, solasean hilko lirateke (antza denez, hitz egiteak aspaldiko konfiantza berritzen die-eta). Hitz egitea laguntza handia da, batez ere ihes egiteko orduan. Gainera, hizketan ari direnean, giza_jeinuari hobeto ulertzeko aukera dute. Olerkariak dioenez: «Kearen antzeko, hitzak badoaz han-hemen sakabanatzen...».

—Niretzat, gainontzeko pertsonak eleberri izengabeak bezalakoak dituk.

—Ba, niretzat, paisaia ezezagunak bezalakoak.

² Egilearen oharra: batzuetan, ikertzailek hoberenek ere huts egiten dute. Sorry.

—Dena den, litekeena duk gainontzeko pertsonak geu izatea.

—Bazirudik amets arraroren batetik sortuak garela.

Kezka bitxiek kontzientzia bitxietan ostatu hartzen dute, eta antxetaren hegaldi lasaiaz irudimena zeharkatzen dute —euren aberria hantxe dago-eta.

Hiriko bake ulertezinak itxaropena dakarrelako, asfaltozko azken paisaiara oraindik inor heldu ez delako, hain ezagun diren kaleak erabat arrotzak zaizkigulako: horretxegatik gabiltza zubirik zubi, liburuetatik ateratako pasadizoei esker axolagabekeria baztertuko dugulakoan.

—Heriotza gogoan bizi den hura ez duk benetan bizi.

—Halaxe duk, bai. Munduan ere bazeudek oso gauza politak.

—Zera, hilkortasuna bera ere izan litekek oso gauza jatorra.

Sei izarrak, zeruan ezkutuka agertzerakoan, itxaropen laburrak ihes atera dira. Leihoetan piztu den gauak ez du lotara joan nahi (esnatze gaiztoren baten beldur da-eta). Bi adiskideak isilean doaz (beren buruei galdetzeko ordua barruan sartu zaie lapur ikusezin antzean). Zeruan, hodei jostariak iragan eta iragan ari dira, nekaezin.

Bi adiskideen aurka oldarturiko ezinegona galdutako mina da beraien erraietan. Biei gustatuko litzaieke tranbia batean sartu eta beti jostaketan ari den mundura jauztea. Taxilariak, bulegariak, ikasleak... Badirudi denak direla eurak baino

alaiagoak: guztiek daramate aurpegian bizitza
pozgarriaren zigilua; guztiek dakarkite norbaiti
musu itxaropentsu bat, guztiek ikusten dute paisaia
zoriontsu bat, guztiek dakite alferrikako ahaleginak
alde batera uzten...

—Ba al dakik gauza bat?

—Bota.

—Besteren bat nahi nitek une honetan izan.

—Bai, nik ere bai.

ALDAMENEGO GELAK

Hormak lodiak bezain erabatekoak ziren, eta gizona eta emakumea bereizten zituzten. Beren bakardadean gero eta gehiago murgilduta, bi izaki haiek elkarri ihes egiten zioten.

Denbora luzean sufritu zuten. Eta deiadarka hasteko gogoia izan bazuten ere, elkarrekin egoteko irrikan bazeuden ere, ez zuten inoiz ezer egin egoera hura gainditzeko. Aitzitik, elkarrekin egoteko premia sentipen etsai bihurtu zen biengan.

Gizonak eta emakumeak trenkada batek zatikatutako lekune koxkorra erdibanatzen zuten. Ia pentsa zitekeen eurek ere beren buruak ez ote zizkieten isiltasunari errentan utzi. Isiltasuna, ordea, zekena da; eta zekenak, izugarriak (gehiago lortu nahian ibiltzen dira beti). Gogor ahalegintzen ziren korridorean elkarrekin topo ez egiten. Hori dela eta, zelatan bizi ziren.

Orain zazpi urte, patuak aurrez-aurre jarri zituen. Geletara iritsi zirenean (gizona emakumea baino aste batzuk lehenago), itxaropen handiagoz egiten zuten biek amets. Keinu txepel batzuk ere egin zituzten, adiskidetasun bati hasiera ematearren. Esaterako, deitu zion egun batean gizonak emakumeari, eta gonbidatu zuen etxe ondoko terrazan kafe hartzera. Antza denez, emakumeari

ondo iruditu zitzaion. Beraz, biak terrazara hurbildu, bertan eseri, elkarki gezur bat edo beste kontatu, itxura apur bat egin eta kafea hartu zuten. Ordu bete pasata, biak egurastera abiatu ziren hirian zehar. Zer gertatu zitzaien ez da erraz adierazten, baina egoera nahasgarri batean harrapatuta geratu omen ziren. Ustekabean sortutako isilaldi traidore baten errua izan zen. Isiltasunarekin hausten jakin-ez, eta urduritasuna nagusitu zitzaien.

—Sentitzen dut, baina joan behar dut —esan zion emakumeak handik gutxira, urduri.

—Zera... Ni berriro hondartzara hurbilduko naiz. Ikusi arte —erantzun zion gizonak hitz-labur.

Orduan, nork bere bidea hartu zuen.

Orduz geroztik, gizonak zenbait aldiz gonbidatu zuen kafea hartzera. Baina bestea, aitzakia bat edo beste argudiatuz, gonbidapena beti atzeratzen zuen hurrengo baterako.

—Ez, gaur ez. Oso nekatuta nago. Mila esker.

Edo:

—Buruko min izugarria dut. Datorren astean agian...

Poliki-poliki, kafea hartzeko gonbidapenak gero eta bakanagoak izan ziren, egunen batean zeharo bukatu ziren arte. Orduan, nork bere bunkerrean babesa bilatu zuen. Eta lehen egunetako begikotasuna elkarrekiko gorroto eta arbuio bilakatu zen —bilakaera horretaz apenas ohartu baziren ere—. Beraz, ekin zioten elkar gorrotatzeari (zertzelada lazgarriek estu hartutako bi gizarajo zirenik ez

zekiten-eta).

Handik aurrera, beren leihoetara agertutako bizidun bakarra isolamendua izan zen. Isolamendua, huntzaren edo aihen-belarraren antzera, arrastaka igotzen zitzaien beren geletaraino; eta gela barrura sarturik, kafesne katilu ketsuetara hurbildu, bere pozoia prestatu eta katiluetan isurtzen zuen.

Bi gela haien inguruan sorginkeria, debeku ilun eta madarikatua kulunkatzen zen, mehatxuzko. Eta gainontzeko etxetik hedatzera zihoala ematen zuen.

Gizona eta emakumea beste era batez existi zitezkeen. Ahalezko aditzen lepotik bizi izan beharrean, begiradaz elkar maitatzeko aukera izan zuten. Zoritzarrez, gizabanakoaren babesak sarritan izaten dira hura bera baino indartsuagoak. Gainera, gure ahalmenetik kanpoan dagoen maltzurkeria ere ez da txantxetan hartzekoa.

Ekinaren ekinaz, eskuraturiko emaitzak auto-errukia eman ahal du sari bakartzat; izan ere, bi izaki haiek erruki handia zieten beren buruei. Sentimenduen aldetik makalduta zeudenez, pizgarri faltsuak asmatu behar izan zituzten —elkar gorrotatzeko orduan soilik zebilen buruzko argitasuna—. *Chambretzat* zuten unibertso hartatik, ekintzarekin zerikusia izan zezakeen edozein jarrera erbestaturik zeukaten. Eta urrutiko zirauten, itxaropen zimel bati begira. Bi gela haietan atxilotuta, jada ez zuten amets egiten, zeren eurak ere iritsiak baitziren amets bihurtzeraino (amets lainotsu). Ez zeuden ezeren irrikan, elkar gorrotatzeko irrikan izan ezik. Hala ere,

elkarri argi eta garbi aurpegi emateko, elkarri egiazko era batez buru egiteko gutxieneko indarra ere ez zuten garatu (irainka, oihuka, azpikerien bidez, etab...). Eta ez dago zertaz harritu: izan ere, bietako inor ez zen benetako bizitzan bizi. Alderantziz, bakoitzak bere gelan irauten zuen landareak bailiran. Egunak aurrera joan ahala, nor bere kobazuloan hiltzen zen... Denen beldur ziren —batez ere, beren buruen beldur.

Ez zuten atzera egin; bekaizkeria basatiari ekin ziotela baizik. Begiak itxita, inguratuz zihoakien gaua ikusten zuten. Belarriak ezkoz itxita, gauaren burlak entzuten zituzten.

Arima hondatu zuten, baita berriro hasteko aukera ere. Urteak (gauza jakina denez) ez dira, ez, hutsalki iragaten; beraz, konturatu ahal izan baino lehen, beren geletako hormak mingostasunez pintaturik zeuzkaten.

Gelatarren bizimodu gogaikarria —dirurik gabeko irakurle asezinarena bezain zorigabea— barruko suizidio batera amildu zen, eta horrek ezerezera eraman zituen.

Bietako bat gelan ibiltzen hasterakoan, aldamenekoa erne gelditzen zen (erasotzear dauden edo arriskuaren mehatxua sentitu duten animaliak bezala), giharrak tenk eginda, *higitzera ausartu den munstroak* eragindako zaratan zentzumen guztiak bilduta.

Behin, ekin zion gizonak gelako alde batetik bestera ibiltzeari, marroi koloreko zapatila higituetan oinak herrestan, ezkerreko zapatilako zulotxo batetik

juanetea ateratzen zitzaiola. Eta horrelaxe igaro zituen zenbait minutu, leku koskorrean ibiltzen; harik eta, ustekabean, trenkadaz bestaldean, kolpe gogorrak entzun ziren arte (kolpeok gizonari adierazten zioten ibiltzetik gelditu behar zuela). Noski, aldameneko emakumea zen. Lehendabiziko aldiz, emakumeak bere gorrotoari utzi zion kanpoko adierazpidea hartzen; eta ondorioz, aspalditik ezkutatutako gorrotoa isuri zitzaion egiazko ekintza baten bidez.

Baina kolpeek gizona sutan jarri zuten. Eta segituan hasi zen bera ere bestea baino indar handiagoz horma joka.

Horrelaxe egon ziren denbora luzean, trenkadan kolpeak ematen; ahalik eta, iskanbilagatik asaldatuta, beste geletakoak eskailerako korridorera atera ziren arte.

Gizonak eta emakumeak elkarri zioten gorrotoa bi gela haietatik kanpora atera zen. Ez litzaieke sekula gauza bera berriro gertatuko. Biak zeuden guztiz ikaraturik, haien gorrotoak uste baino erro sakonagoak zituela ikusi zuten-eta.

Urteak bizkor iragan ziren, ideia baten abiaduraz edo. Baina gizonak eta emakumeak beti izan zirena izaten jarraitu zuten: bi itzal izengabe eta mesfidati. Horrenbeste gorrotatu zuten elkar, ezen, azkenik gorrotoa aurpegi-aurpegian lehertu zitzairen. Eta egun batean, nor bere gelan hilik agertu zen, zoruan luze-luze etzanda.

Hil eta gero, oraindik lortuko zuketzen zoriotsuak izatea, elkarrekin hilobira zitezelako zorte txarra izan ez balute, hau da, aldameneko hilobi banatan, biak lurrezko trenkada batez bananduta.

BIZIAREN ETA HERIOTZAREN AMA

Euria denboraren oihartzun zoragarria bezalakoa zen. Baina euriaren hots etengabeak Olaxtaren larrimina areagotu baino ez zuen egiten. Bien bitartean, etxeetako leihoetan gaua bazihoan poliki-poliki pausatuz, txori-beltz antzo.

«Nire semetxo gizarajoa hilik bizi da koralezko ametsetan. Eta nik ez dut ezer egiten, hori horrela izan ez dadin... Harrizkoa ote dut bihotza?», horrelakoak ziren Olaxtaren burutik pasatzen ziren pentsamenduak (pentsamendu benetan mingarriak, garraztasuna lepoari josita izango balu bezala).

Duela hiru urtetatik, Olaxtaren semea gezurreko lo batean zegoen, biziari loturik zeukan tresneriari esker.

—Klinikoki hilik dago —izan ziren zirujauaren hitzak.

—Zer-zer esan nahi duzu? —galdetu zion Olaxtak.

—Zera esan nahi dizut: zure semea ez da inoiz bere senera etorriko. Lo sakon batean murgilduta biziko da betiko. Eta bizirik iraungo du tresneria honi esker.

«Lo sakonean murgilduta biziko da betiko... Haren ondoan izango naiz, baina ez du jakingo bere

ondoan nagoenik... Oso bakarrik sentituko da nire semetxo gizagaixoa, izugarri bakarrik. Harentzat gorderik neuzkan poztasun ezinezkoak ezingo ditu ezagutu; munduko maitasuna bere sehaskan zain zegoenik ez du sekula jakingo; bera gosez ikusi baino lehen, jaki gisa neronen bihotza emango niokeenik ere ez du inoiz jakingo. Ai, ene Jainkoa! Nire semeak ez du pentsatu behar amak alde egin duela. Akaso amesgaiztoek inguraturik dago, akaso niri deika ari da baina ez daukat bera laguntzerik, ezta musu batekin lasaitzerik ere... Inoiz irri egingo ez didan semerik ez dut nahi! Ez nuen munduratu ilun amaigabe hau eskaintzeko!».

Olaxtaren begirada lurrezkoa zen eta begiak gorrituta zeuzkan beti. Mundutik urrunduriko begitarte zirriborratzen zitzaion aurpegian. Olaxta etsi-etsita zebilen konponbideren bat bilatu nahirik. Itzalak hatz-azkazalekin urratuz, entzuten ez zion haurarentzako kantak kantatzen zituen ahopeka.

«Beraz, horrela pasatuko zaizu bizitza osoa? Oi, enetxoa: nirekin egongo bazina! Zure ohetxoa hutsik ikusten dudanean, bihotzean sentitzen dudana mina! Hilik bizi den semea zara; bizirik hiltzen den ama naiz. Nahi nuke zure eskutxoekin jolastu, zurekin zorionaren jolasean aritu... Hain biziki oroitzen naiz zutaz... Zure begitxo alaiak nire irriñotik zintzilik... gaixotasuna agertu baino lehen... Gero, ospitalea... operazioa... operazioak iraun bitarteko une larriak... O, ez zaitut nahi Herioaren eskuetan, hieroglifiko ulertezin batera agertuta, goiz distiratsuetatik urrun! Nork opa dizu gerorik gabeko

gero hau? Zure patuak ez badizu itxaropenik eskaini nahi, nik emango diot amaiera zure patuari! Lortuko dizut heriotzarako gonbidapen bat, bizitzarako bat lortzerik ez daukadanez gero. Zure bizia hilko dut eta baita neure bihotza ere. Eta inork ezer aurpegiratuko balit, horrela ihardetsiko nioke: heriotza debekatuta zeukan umeagatik sufritzen nuenean, denak pasatzen zineten nire ondotik hitz gozorik ahoskatu gabe, ni nintzen aurpegirik gabeko amari begirada maitagarriarik jaurti gabe. Nor ausartuko ote da niri *hiltzailea* oihukatzeraz? niri, munduko maitasunari?

Erabaki bat hartuta atera zen etxetik Olaxta. Urratsek, astun eta bentzutuak ziruditenek, Ospitalera eramán zuten, non bere semea lo zegoen, bizia ematen zioten aparailuei lotuta.

Zerua eta lurra galdutzat jotzen zituenez, harriak urtzen diren tokiraino igo eta jaistea beste aukerarik ez zuela iruditzen zitzaion. Olaxtak bazekien harriak behintzat berataz urrikalduko zirela.

Olaxtak bere buruari ihes egin zion, eta hurrengo ekintzari irri egiten ziola, bere gorputza eta bere arima menperatu zituen. Kaleko isiltasuna hautsi ahala, suaren dantza gozoa islatzen zitzaion aurpegian. Beldurrari (zeruertza bezain amaigabea zen beldurrari) aurre egiten zion begi zurbil eta dardartsuez.

Azkenez, bere semeak hitzak amesten zituen Ospitalera heldu zen. «Larrialdi»etako atetik sartu zenez, inork ez zion eragozpenik jarri eraikin zurian sartzeko (Herioaren eskuak ere zuriak omen dira). Eta bigarren oineko korridorera iritsi zenean, besteak

bezalakoa zen 256 gelara abiatu zen lasai. Bertara iritsi orduko, ustekabeko ikarak hartu eta ahalegin izugarria egin behar izan zuen toki hartatik alde ez egitearren. 256 gelaren barruan, semearen sei urtetxoak distirarik gabe etzanda zeuden, bizitresneriari lotuta (*gizaki gutxik jakin zuten bakarrik eta bizirik irauten* —zitalek izan ezik—).³

Gela barruan, horrela hasi zitzaion Olaxta semeari hitz egiten:

—Etorri naiz, seme, zure azken loa sehaskatzera, zuri azkeneko aldiz kantatzera. Ez dakit entzuten ari zaren. Baina entzuten badidazu, zera esan nahi dizut: maitatu zaitut goiz distiratsuetako eztitasunaz. Neuk ekarri zintudan mundu honetara, eta orain neuk bidaliko zaitut beste mundu hartara. Zuzentasunak gidatzen nau. Erakutsiko dizut norainokoa den nire maitasuna, horretarako ordua iritsia da-eta.

Bere semea bizirik iraunarazten zuen tresneria deskonektatu zuen Olaxtak. Gero, horrela jarraitu zuen bere semeari hitz egiten:

—Enetxoa, bizia eta heriotza izan naiz zuretzat. Egizu hegan, ene txoria, egizu hegan urrutiko herrietaraino. Lagun dizula beti nire maitasun sakonak! Bete ezazu zure patua nik neurea bete dudan bezala. Ozeano amaigabea, unibertso mugaezina, ibaietako urak, eguzkien beroa: zuretzat

³.- Egilearen oharra: parentesi arteko aipamena "E allora noi vili" poemari dagokio, Cesar Pavseren "La terra e la morte" bildumakoa. "Zitalek izan ezik", ordea, neuk erantsi dut.

dira. Nik, zure amak, opari gisa ematen dizkizut horiekin jolasean ari zaitezen. Korri egizu, nire txikia, izarretako basoetan zehar! Aurrera, ene bihotzekoa, esklabotasuna ezagutu ez zuten herri askeetan zehar! Ez gelditu gau-minean! Xuxurlaka ari den zuhaitza, gogoetan dagoen harria, taupaka ari den itsasoaren bihotza izango zara. Nire iragana, oraina eta geroa bilduta daude zure baitan. Ihes egizu, ene kuttuna, ulertzen ez dutenak azaldu baino lehen, jakintsuak etorri baino lehen, sazerdoteak oldarka eta sufrea okatuz agertu baino lehen! Egizu hegan, ene txikia, amatxoa ere zurekin doa-eta. AMA! Ala uste ote zenuen bakarrik abiatzen utziko nizunik?

GORPUA

Munduak ikaratuta, gorpua aurrera doa gauean barrena, gau gorpu-gosetia aspaldidanik zegoen-eta une horretxen zain. Gorpua kaletik dabil itxaropen handirik gabe, toki guztietako pentsamenduak jiraka eta jiraka bere kaskezurrean.

Galdera berriren bat formulatzeko irrikan, gorpua izateaz asper eginda, bizidunen atea itxi nahi luke behin betiko, ia ez zaio-eta indarrrik gelditzen ametsetan jarraitzeko.

Noizetik noizera, jakako poltsikoan daraman liburua haztatzen du adigalkor. Liburuez, ordea, jada ez du ezer espero (bere begirada isiltasunean jarrita daukanez, gauaren begiradarekin bat egiten du). Itxaropenik gabeko gorpuk «Ederra izan zitekean...» xuxurlatu du. Maite ez duen iraganaldira itzultzen dira bere uste-on guztiak.

Erabateko egia-nozio batek betetzen du barrutik —ankerra bezain beharrezkoa den egia-nozio batek—. Dena den, zertarako behar inolako egiarik? Alkohola ez edan arren (nahi izanez gero, gorpua edateko gauza izango litzateke-eta), lurreko zaratek lokietan taupa egiten diote: gauza irudikatuak, husturiko hutsuneak, lipar mortuak. Bakartasun itzelaz ahaztu gabe, noski. Gorpuk:

—Hildakoa nauk eta bizitzera zigortu

ninditean. Ez juzkatu ni, otoi! Ulertu ezin dudan zerbaitek jaurti nindian pentsamenduen bidera. Bizitzari buruz ez diat tutik ulertzen. Bazekiat batzuek bizitza maite dutela, eta zoriona zenbait unetan existi daitekeela. Apenas sinesten dudanagatik preso nagok. Ez! Ez diat ezertan sinesten. Hildako gorpua nauk. Hildakoek ez ditek zorion-beharrik. Hildakoak. Oi, hildako gizagaixoak!

Begiak itxita, urteak diruditen hainbat segundoz gelditzen da kale erdian. Gero, berriro ibiltzeari ekin eta aurpegia eskaintzen du, haizeak laztan diezaion. Larritasunak harrapaturik egon arren, aurrera dabil, buruaren tokiren batean sortutako min ankerrak aurrerantz bultzaturik. Izakiaren funtsa minean dagoenez, minari keinuka ari gara ezinbestez. Haginetako mina bezain bidegabeba da gure patua: mina gugandik ateratzeko, heriotza ere gugandik atera beharko genuke.

Hiriko argiek zelatatzen dute gorpuaren irria, eta zero sakona begiz jo daiteke hodei goibelez harantzago. Gogor ahalegindu arren, gorpuak ez du unearen zoriona susmatu ere egiten (edertasun kolektiboa denez, ezin da-eta hartaz gozatu). Gainera, hiriko edertasuna badirudi axolagabekeria aienatu dela.

Bien bitartean, sexuak hortxe dirau. Sexuak, hanka-zabalik, dei egiten digu egiati, logika handiz. Gorpuak eskuaz keinu bat egin du, suizidio ikusezinak uxatu nahian-edo (ba ote dira gorpuak beren buruak hiltzeko gauza?).

Gorpuaren ibilera ikusita, batek esango luke

gorpu aristokrata dela. Dirurik gabeko aristokrata, jaun-izenik gabea... Irri erraz batekin saiatu ondoren, irria berehala ezabatu du aurpegitik. Neurri batean (beharbada, neurri handi batean), itxura egiten ari da. Bai, horixe! Itxurazale amorratua da! gorpua itxura egiten ari da! Heriotza osoa joan zaio sekula izan ez den norbaitena egiten. Bera bai aktore aparta! Ez daukan ikuslegoari kilimusi eta guzti egiten dio! Gorpuak:

—Logure nauk... Nire baitatik oihukatu nahi nitek. Batzuetan, ulertzeko gauza naizela iruditzen zaidak; inguratzen zaidan gatazka sumatu bezain laster, ordea, uko egiten zioat... edozeri. Biderik errazena hautatu nian: kale artetik galtzea (kaleez gain, ez baitut beste ezer ezagutzen). Zeruko argiak hain dituk ugariak, ezen, denak ezagutzea ezinezkoa zaidan; hala ere, gustatuko litzaidakek izar bakoitza bere izenaz izendatzea... Ispilu aurrean naizen gorpuari antzematen zioat ni baino egiazkoagoa. Edozein modutan ere, hildakoa baino ez nauk, eta hilik egoteko daukadan gogoaren esklaboa nauk. Putetxeetan hiltzen diat nire burua egunik egun.

Ideaia iheskor artean labaindu ahala, axolagabekeria maitasun-seinalea da bere baitan (zertzeladen arabera jokatzera beharturik dagoenez). Ez daki samurra izaten, bere buruarekin guztiz krudela izan zelako. Agian, egunen batean aurkituko du hain irrika biziz bilatutakoa: Jainkoaren antzeko zerbait. Jainkoa, ordea, gure ahalmenetik kanpoko dimentsioa du. Beraz, ezinezkoa da existitzen ez den tokira iristea. Urrats bakoitzean, nekea atxikitzen

zazio begietan... gehiago ikusterik ez daukan arte.

Hiri inguruko hormatzarretan izen bat idatzi du, bost letrako izena. Klabez idatzitako mezua ote? norbaitek irakurri eta ulertuko duen mezua agian...? Berak, ordea, badaki itxaropenak bultzatuta zutik dirauela. Eta badakienez, itxaropen horrekiko eszeptiko bihurtzen da. Eta ez pentsa uki daitezkeen itxaropen horietakoa denik, baizik zentzu orokor batean hartutako itxaropena, guztiongan hain pisu handikoa izan daitekeena.

Hiriak badirudi bizi izateari utzi diola. Gorpuak zikin eta hotz deritzo hiriari, hau da, gorpuak zikin eta hotz deritzo bere buruari —bera den frustrazioa hiriari leporatu arren—. Hiria, ordea, ez da berak uste duena; azken finean, hiriak ez du gorpuaren eldarnioekin zerikusirik. Edo bai...? Gorpuak arrotz sentitzen da, eta eskua burura jatorik, bere buru-hezur zuria haztatzen du pentsakor. Une batez harritu da, «baina... benetan existitzen al dira gorpuak...?» galdetzen du bere artean. Gorpuak:

—Hotz nauk hemen. Eta zeinen bakartia den plaza hau... Munduan ez zegok ez ezer ez inor, gizaki bilduma bat izan ezik. Beren buruak ezagutzen ez dituzten haientzat duk mundua. Berriro ari nauk esaldiak egiten, aitzakia atzetik ezkututzen. Ahaleginduko nindukek ahalegintzea merezi duela jakingo banu. Existentzia biluzik zegok. Heriotza duk gezurra, gezur itzela. Mozorroa alde batera utzi eta ahazten saiatu behar diat, nire buruaz ahaztea lortu arte, erabateko garaipena erdietsi arte.

Soin-atalak inertzia hutsez ibilaraziz, izenik

gabeko gorpuak ibiltzen segitu du. Bat-batean, korrikari eman dio. Arrapaladan, sukarrak hartuta bezala ari da korrika. Gorpu gizagaixoak bere burutik alendu nahi luke, beragandik urrun beti egongo den hartara hurbildu nahi luke. Lasterketa etsian bizizantzurik antzeman nahirik, ihes dagi. Zenbat eta azkarrago, orduan eta urrunago bila ari den hartatik... Azkenez, indarrik gabe gelditu (gorpuak ere ahitzen direlako) eta itzalik ez duela konturatzen da izu-ikaraz. Itzalik ez! Horrek ere, beraren itzalak ere utzi du bakarrik! Odolik gabeko ezpainetatik oihu luzea atera zaio: gorpuak munduaren bakartasuna ulertu berri du.

Gorpuak:
—Hilko ahal nauk egunen batean!

LANGABEA

Badaude erbestealdiak alferreko obsesioaren arintasunaz ezartzen direnak eta gizabanakoarengan gordetako ugaritasun oro hondatzen dutenak. Langabearen proletario-bakardadeak eragindako minbizi-mota bezalakoa da (langabea har baikenezake arlote erradiaktibotzat, ezaugarri gabeko izakitzat).

Buruturiko zapokeria honetan, Eguzki Erregearen garaileak kurrinka ari dira zintzotasun osoz. Langabea —fraudearen aurreproiektu-kidea, bost puntako eta gorri ilun koloreko izartxo odolzalea— hil zorian dago. Eta bakar-bakarrik, izugarri bakarrik.

Izpirituak berehala porrot egiten diot, erabat eta betiko: soldatarik gabe iragandako urteek saldukeria ere ez dute-eta irrikatzen. Gauzak horrela, bide bakarra baino ez zaio gizagaixoari geratzen, hots, bere burua trofeo moduan erakustea... bere existentzia urriaren bide-bazterretan. Bien bitartean, jainkoen kosmorama horretatik atzemandako ideal aberatsez elikatzen arituko da.

Langabeak badu Neanderthal gizonaren kaskezur berbera. Berarekin zerikusia duten gizajale-ametsak eginez, bere burua mixeriaren putetxearen aurrean iragarritz, masturbazioaren edergintzan

errekor guztiak apurtuz: «Zital alu horrek, gure jaiotze-tasa txit itxaropengarriak pikutaratu nahi ala?».

Langabea kontsumitzen zaigu gorrotoz (arma bakarra izanik) eta esperantzaz (naziotasun bakarra delarik). Gainera, kristoren burugorria da (ez da hiltzen!) eta baita tematia ere (urte luzez iraun dezake bere buruaz beste egin baino lehen!). Konstituzioaren antikristoetariko bat da (vade retro eta ez izorratu, p. horrek!).

Badu gaitz bat halere: ederregi deritzo dirua aurrezteari.

Baina okerrena ikustea da zer-nolako ahaleginak egiten dituen mundu guztiari oihukatzen: «Neuk ere badut eskubidea zulo batean bizirik erortzekoa!». Ez baitu soportatzen bera bizirik lurperatu duen Miseria ditxosozkoa, «beste gizarte»aren plazenta urologikoan atxilotu duen Mixeria tematsua, pobreziazko tiro batez enkainonatu eta zauritu duen Mixeria lizuna.

Egoera dela kausa harroturik, katakonbako kristaua izan nahi luke. Errealitateak, ordea, betiko trapu zaharra kentzen dio begien aurretik: espeleologiarekiko zaletasunik ez. Eta metamorfosiarena baino beste biderik gelditzen ez zaionez, bere gorputza faisai gozoa bihurturik, mugaz kanpoko hegalaldi batean eiakulatzen du zeruan zehar (zeren langabeak berezko jurisdikzioa ere ez daukan).

Eta orain, agurgarriaren baimenarekin, zorioneko txakur gonbidatu honek puntu eta bereiz egin nahi lioke bere idazki boltxebikeari. Ez zaitzala garraz nire garraztasunak; ez zaitzala asalda nire porrusaldak.

Musu txiki bat (langabe-musua)

TXABOLETAKOAK

Hitzaldi politikoaren gorentasunaz, hotza poliki-poliki txaboletan sartzen doa. Hotz lodia da, hain lodia ezen malutaka ere jaso litekeen.

Txabolak iparralderantz hedatzen dira, lurretik era zentzugabea sortuz. Bien bitartean, haurrak «bero egiten zuen» jolasean ari dira. Hirira daramaten bide-zidorretan behera jaisten dira aurpegi zimelak (oparotasunak han alferrikaltzen du-eta deseredatuen premia eta beharra). Mutil-neska talde isil handi batek jarraitzen die. Eta hamabost urte baino gehiago ez izan arren, euren keinuetan eta ibileran pertsona helduaren osotasuna, lilura antzematen zaie.

Arratsaldean, gizonak hilik daude beren ilusioetan, zoriontasun ezinezkoak besterik eskaintzen ez dien hiriari so.

Txaboletakoen aurpegiek gaizki menperaturiko haserrea ezkutatzen dute. Sorginduriko mingostasunez, indar magnetiko bat inguratzen zaie: heriotzarantz abiatuz jaio ziren.

Gaezan, txakurrak zaunka ari dira, jadanik inork espero ez duen etorkizunari zaunka egingo bailioten. Zoriontasuna (ametsa laburra berau) errealitatearekiko arrotz bilakatu da.

Udazkenean, zuhaitzetako hostoek erortzeari

uko egiten diote. Giza arima azkenetan dago, gogo ahuleko bidaiariaren antzera (penarik ez, ezta loriarik ere).

Txabolarien ezpainetan oraindik dirau beren mixeriaren zergatiarekin zerikusia duen zapore mamiak.

Belarrrik gabeko zelaian, txabolak bipil altxatzen dira, zabaldegia irentsi nahian. Noizean behin, kanta bat edo beste entzuten da...

Agureak makur esertzen dira, eta gazteak dabilta existituko ez balira bezala, ametsetako ibileraz.

Espasmo hondagarria, ustekabeen sortutako errege-leinua, pobreziaren konfederakundea: hau guztiau, eta gehiago ere bai, osatzen dute txabolek. Ilunabarreko dibertsio bakarra solasean patxadaz aritzean datza, biztanleak amets harroputz artean erori baino lehen.

Txabola-herri honetan dena dago zehaztu gabe, hiru hitz aditzeko ezintasuna izan ezik: *geureak eginda gaude*.

Hurrengo goizean, kanpora aterako dira egoera ulertezinak oihukatzeko prest. Hala ere, oro har nahiago izaten dute itxarotea (nork jakin!), arbasoengandik jasotako gauza bakarrarekin saiatzeko: pazientziarekin.

Herriak axolagabe dirau geroaren aurrean; txabolariak egunean bizi dira beren begirada isil eta nortasunik gabeaz. Ondoko txabolan, berriz, umearen ezpainek mugarik gabeko biribiltasunetik edoskitzen dute antsiaz, unibertso osoa xurgatu nahi

balute bezala.

Txabolez harantzago, aberastasun
hordigarria.

BAKARTIAREN EZPAINETAN

Patxadaz bizi izateaz gogaiturik banago ere, bakardade zakar honetan laburturiko espazioa egiaztatzen dut. Eta nire buruari jotzen dizkiot oraindik ikuskizun geratzen zaizkidan urteak (harri eta zur diraut, nitaz hain harro dagoen ezerezaren aurrean).

Pentsamendu iheskorrei —barrutik atera nahi nituenei— agur esaten diet zera oihukatuz: oxala sekula itzuliko ez bazinete! Banaizela bermatzen didaten begirada azkarra eta keinu zehatza besterik ez dut behar, hau da, nire gogoz bestera edukitzen nauen bakardadea joan bedi pikutara.

Gelaren luzera eta zabalera, horma gorrotagarriak, mundutik urrundu eta isolatzen nauten gauza guztiak leherraraziko nituzke! Basati eta sineskorra, burugogor eta balakaria: zeinen ongi antzezten dudan automarjinatuaren antzerki alai eta merkea!

Ezin ulertzera bultzatu nauenak marmar egiten dit: «Hi, motel, ilargi jota hago». Eta erantzuten diot nik: «Lasai, tronko, ez nauk-eta Pekinera joango». Leihoaz bestaldean hasten den kalearekin erdibanatzen dut nik taxugabea den oro.

Bakardadeak gogor egiten dit. Eta bizkarra ematen diodan bakoitzean, niri aurea hartu nahian

hasten da. Alfer eta mehatxari, bakardadeak zelatatzen nau, nire gainera noiz jauziko zain, nire aurka oldartzeko irrikan. Hori dela-eta erne nago, ematen ez badu ere (ona da, bai, etsaia fidatzea).

Bere burua ezagutzen ez duen gizagaixoaren liluraz ekiten diot lapitza zorrozteari. Gero, hainbeste begirunez eta umiltasunez nazka-nazka eginda, ohetegiko atea ireki eta pausu ausartekin komunara noa zir-zart batean. Bidean eragozpenik ez: ezpata zorrotik atera eta konketan isurtzen dut urre koloreko gernu lurrintsua. Harri eta zur, beharbada goibel, nire ekintzak erakutsitako balentriaz miresten naiz.

Korridoretik itzultzerakoan, arrakastaren sentsazio atsegina nireganatzen dut. Areago ere: zentzu onari dagokionez, inork aterako ote dit abantailarik? Zuhurtasunaren aldetik inor ez baita desorekatuagoa zokokeriaren atzerrian bizi den hura baino.

Bakardade ezitsuan hazita naukazue, eta isiltasun jasangaitzak sumindu egiten nau. Mugaturiko unibertso honi behin eta berriz zin egiten diot... gezurretan (errepresentatzen duen ustelkeria sentitzen dut-eta *azken folioraino*).

—Azken folioa! Hau izango duk azken folioa eta pikutara bidaliko diat dena!

Burkoan bildutako amets zitalei belarri egiten diet; eta bakardadea hurrengo egunera arte bazterturik, harroputz honek lo eragiten dio bere zorian abortatuari. Azken esperantza barrunta daiteke.

Egon! Ez joan oraindik! Badut hemen zerbait... Non utzi dut? Hemen zegoen... A, bai. Aurkitu dut. Paper batzuen azpian zegoen eta horregatik ez nuen ikusten...

Hor duzue:

LXXVI

Gauetik goizera noa
ixarik mutuenei mihia ateratzen diedala.

Birjin horren izenean
2 izateraino begiratzen zekiena.

Arrotz izan nintzaionaren izenean,
giltza eta txapa erabat desberdinak.

Ez ahotsik ez botorik izan ez zuen
haren izenean, zorte-eguna
erabaki zenekoan.

Gorputz-irakidura, ordea,
edo zertarako gai; 99 burbuilatan bakarrik
beti egon zen irakidura.

Erremateak, naturaz esposatuak,
elkartzen ez diren bi egunetakoak,
elkarri sekula antzematen ez diotenak!

Cesar Vallejo

Traidorea naiz hezur-muinetaraino. Tira,
orain alde egin dezakezue.

HITZ-JARIOA

Amorraturik egotea hilda egotea bezalakoa da, gauzen misterioei uko egitea bezalakoa. Ahaztuta, banabil. Inguratzen zaizkidan egite gaiztoek nahaspilaturik uzten banaute ere, lau haizetara jasotzen dut ametsetako bandera orlegia. Bihotz-bihotzean, ni baino zabalagoa den mundu latza.

Nigan bizi den kreatura hondamenaren alegia (ipuina) baino ez da. Eta patxada handiz txistuka ari naizen artean, nire sexua ukitzen dut ez-nolanahiko atseginez. Orduan, garai bateko egoerak gogoratzeak min ankerra eragin dit. Eta eguna nire ohetegiko lau horma hauen artean argitu duenean, kare-barrekada batez harrapatuta bezala gelditu naiz, munduarekiko erremediorik gabea.

Ikertzean dihardut. Esaterako: noiz entzun nion amari azken aldiz negar egiten? Adinak ihes egiten dit eta neu ere hasia naiz zimurrak amaren zimurrekin erdibanatzen.

Lotan egotearen sentrazioari aberegarria deritzot (oi, gaurko hiri gizarajoak: zeinen aspergarriak zareten!). Jo eta ke berriketan ari naiz; bestela, zer izango litzateke nitaz?

Henri Martin kalean —Parisko urrutian— sinetsi nahi nuke. Zoritxarrez, mendian gora eta

behera dabilen lainoan bakarrik sinets dezaket — zelaletako belarra orraztuz ibarrari inguratzen zaion lainoan—. Zelai horietako batean luze etzanda nago, begiak itxita, mundu-zatitxoei so. Ahal den guztia egiten dut (barka nazazue, goi mailako hiru ikasketa bertan behera utzi izanagatik).

Hau bai poza, kalean inor ez ezagutzea! aurpegi ezagunen presentzia nekagarriak jipoituta ez izatea! Kalerik kale dabilen txakurra izan nahi dut: ez izenik ez lepokorik ez ziurtaturiko janik, betiko hilik egoteko irrikan. Eta aberats-plantak eginez, emakumerik bertutetsuenei ziria sartu eta segituan hanka egin, nire atzean denak haserre bizian utzita. Bihotz-zimikorik? Ez, eskerrik asko (gaur ez nago inorentzat).

Munduko izkinaren ondoan gelditu naiz, nire burua noiz zintzotuko zain. Horrela izanez gero, giza keinuaz ibiltzeari ekingo diot berriro. Pentsatzeak ez duela merezi pentsatzen dut; bizitzan zain egon izanak ere ez. Nire hitz hauek norbaitek aspergarrizat joko balitu... Ondo da: leku eman diezaiogun elkarri (senitarte ugarietan denentzako ogirik ez).

Egon! Ez joan oraindik. Badut hemen zerbait... Non utzi dut? A, bai. Hemen dago. AEK-ko Amara Berri Euskaltegiko nire ikasle batzuek egindako lana da. Cesare Pavese-ren poema bat eman nien euskaraz jartzeko, eta begira zeinen ongi egin

zuten. Noski, nik zuzenketa bat edo beste egin nien. Hala ere, ezin da ukatu beraien meritua denik. Of course, itzulpena dela-eta norbaitek auzitan sartu nahi izango balu... Tira... Nik... nik ez dut horrekin zerikusirik... Nik, istilurik gertatzekotan, ikasle horien izenak pasatuko dizkizuet eta hor konpon, osea...

Azken ohartxo bat. Nire ikasleek italieraz ez zekitenez —italiera kontuetan erabat belarri motzak zirela aitortu behar dut—, poema gaztelaniatik euskaratu behar izan zuten. Baina bururatu zait norbaiti jatorrizko bertsioa ezagutzea gustatuko litzaiokeela. Beraz, nire erruz ez galdu horrela egiteko aukera.

Verrà la morte e avrà i tuoi occhi

VERRA la morte e avrà i tuoi occhi—
questa morte che ci accompagna
dal mattino alla sera, insonne,
sorda, come un vecchio rimorso
o un vizio assurdo. Y tuoi occhi
saranno una vana parola,
un grido taciuto, un silenzio.
Così li vedi ogni mattina
quando su te sola ti pieghi
nello specchio. O cara speranza,
quel giorno sapremo anche noi
che sei la vita e sei il nulla.

Per tutti la morte ha uno sguardo.
Verrà la morte e avrà i tuoi occhi.
Sarà come smettere un vizio,
come vedere nello specchio
riemergere un viso morto,
come ascoltare un labbro chiuso.
Scenderemo nel gorgo muti.

Herio etorriko dun eta hire begiak izango dizkin

HERIO etorriko dun eta hire begiak izango
dizkin—

goizetik gauera laguntzen gaituen
Herio hau, logabea, isila,
bihotz-zimiko zahar edo
akats zentzugabea bezala. Hire begiak
alferrikako hitz,
garrasi isil, isilunea izango ditun.
Horrela ikusten ditun goizero
heu bakarka makurtzen haizenean
ispilu aurrean. Oi esperantza mina,
egun hartan geuk ere jakingo dinagu
bizia eta ezereza haizela.

Heriok bazeukan denontzako begirada bat.
Herio etorriko dun eta hire begiak izango dizkin.
Bizio bat utzi,
ispiluan aurpegi bat agertzen

ikusi, itxitako ezpain bati
entzutea bezala izango dun.
Maturik amildegira jaitsiko gaitun.

(1950)

KALEAK

C'est pas la peine de se débattre, attendre ça suffit, puisque tout doit finir par y passer dans la rue. Elle seule compte au fond. Rien à dire. Elle nous attend. Faudra qu'on y descende dans la rue, qu'on se décide, pas un, pas deux, pas trois d'entre nous, mais tous. On est là devant à faire des manières et des chichis, mais ça viendra.

(Louis-Ferdinand Céline)

Kaleak beste mundu batzuen aurrean esnatzen dira, eta haizetxo batek xoratuta, aharrausi egiten dute lizunkoi, lehendabiziko eguzki-errainuari begi-keinuka.

Haragirik gabeko maitasunekin muga egiten duen zeinu-eskema bat uzten dute kaleek asfaltoan idatzita. Hamaika kantoï, hamaika kilometro galtzada dago itzaroteko prest (ametsik bat ere sekula ez dutela kausituko jakin arren). Kaleak gaueko begi izendunak dira.

Etorbideetan zehar ibili, hala-holako alderdiez jostaturik, gero eta desira lizunagoak eragiten dizkigutelarik, galduta egotearen higuinak bere egiten gaituen arte.

Nire irriak itxaroten duena gutziziatuz, asfaltoa zanpatzen dut axolagabe, begiak erdi itxita. Negar egitea ondo aterako ez litzaidakeen aupada izango litzateke. Beraz, nire aurpegiko bi zuloei altzairuzko obo bana jartzea beste aukerarik ez dut (puntu honi dagokionez, ez izan dudarik). Kaleek errituzko kantak egiten dituzte, eta zahartzen ari den denborari esperantza koloreko argiak jaurtitzen dizkiote (kaleak hain daude zaharkituta, non beren buruez errukitzen diren). Erabat zoraturik banabil, zebrabideetan bozaturiko hitzetatik zintzilik. Maitasunezko hitz biluziak dardarka ari dira zabor piloetan. Mozkortiak, kausarik gabeko borrokalariak, marmarka eta zabunka zeharkatzen du kalea. Pobrezia gorrian bizi den emakume horrek gosea nozitu beharko du bihar ere.

Etorbide amaigabeetatik ibiltzen gara ausardiaz, amets baten errealitatea aurkitu nahian, geuk, amaigabeok, eleberri on baterako soilik bizi garenok (zer ote da *eleberri on bat?*).

Zumardietan badago zerbait berandaturik, eta galdera nekatuak gogor ahalegintzen dira *zerbait* hori argitara ateratzen (galderak izu-ikara handian bizi badira ere —erantzunak benetan ikaragarriak izan litezkeelako—). Gauean, Hide Park-eko itzalak albora datozkigu, jadanik itzalita dagoen mitologiaz gu bustitzeko, irudi nahasgarriak guri oparitzeko

(oroitzapenek kaleetan ere jauzi egiten digute). Uko guztietarako erantzunak: horra hor zeren beldur ziren galderak. Ez al diezue gizonei oihuka entzuten? Entzun, entzun...

Hodei hura ahaleginez eta izerdiz osaturik zegoen.

Kaleak ezerezari, ustekabeko salbazioari begira daude. Munduko kale guztiak agertzen dira zabortegietan pilatuz doazen idealetara. Zein baino zein ederragoa, zein baino zein egiazkoagoa: giza itxura duten zabortegiak.

Nirekin zerikusirik ez duen hiriko kaleetan banaiz zapi batekin agur esaten duen kreatura. Batean, keinua apurtzen zait, eta zergatik ez badakit ere, negarrez ari den haurra bezain barregarria sentitzen naiz.

